JABIER RETEGI: EUSKO IKASKUNTZAKO PRESIDENTE BERRIA /4


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko abenduaren 27a • III. urtea

92. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




## BARRUAN, ZURE HERRIKO URTEKARIA




**Goienka2a**
Gabonetako jaiotzak ipini dituzte ibarreko lau herritan

**LUZMA ROJAS**
*"Herri pobreei aukerak eskaini gura dizkiegu"* /9

**ARAMAIO**
Urte hasieran aurkeztuko dute 'Aramaioko Mapa Toponimikoa' /5

**ARGAZKI-KRONIKA: DEBAGOIENEKO HERRIETAKO GABONETAKO IRUDIAK** /6-7

ASTEKO GAIA: GOIENAKO KAZETARIAK GALIZIAN, IBARREKO BOLUNTARIOEKIN /2-3

# "Hilabete pasatu den arren, antolaketa eskasa dute han"

- *Esperientzia ona bezain gogorra izan dela diote boluntarioek*
- *Galiziarrak haserre daude agintariekin*

Berba asko behar dira Galiziako kostaldera hurreratu, egun batzuk igaro eta itzultzerakoan han bizi izandakoa azaltzeko. Berba asko, marea beltzak egin duen kaltea zenbaterainokoa den adierazteko, baita hondartzak ikusterakoan sentitzen dena azaleratzeko ere. Dena laburtzeko berba bakarra aukeratzekotan, *elkartasun* berba da egokiena.

Lerrook ibarreko boluntarioekin batera joan den asteburuan Galizian izan zen GOIENKARIAko kazetari Xabi Urzelaik idatzitakoak dira. Barruan gehiago.



Carnotako hondartzetan fuel-olioa kentzen laguntzen ibili ziren asteburuan Debagoieneko 210 boluntario. XABI URZELAI

## ELGETA

### Goibeko elkarteak 18.000 euro banatu ditu loterian

Gabonetako loteriak ez du diru askorik utzi gure ibarrean, baina zerbait bai. Elgetako Goibeko elkarteak, esaterako, 18.000 euro banatu ditu, 51.203 zenbakiari zegokionak. Goibekok salgai jarritako txartelek lehenengo sariaren bi zenbaki eta bosgarrenaren hiru dituzte. Txartel bakoitzaren jabeak 26,4 euro irabazi ditu. /5

## ARETXABALETA

### Iban Da Silva arrasatearra da udaltzain berria

Iban Da Silva 23 urteko arrasatearrak udaltzain lanak beteko ditu Aretxabaletan urtarriletik aurrera. Ibanek Alberto Zillaurren, Martin Garai eta Jose Núñez udaltzainekin batera egingo du lan. Udaltzain izateko probak azaroan hasi zituzten 13 lagunek. Ordutik hona, hainbat azterketa egin eta gainditu behar izan ditu Iban Da Silvak. /5





GELAN
HORMA-ARMAIRUAK



Zabaldu berria!

Kruz Gallastegi 9
BERGARA
943 76 38 10

visel ATEAK banatzaile ofiziala




## Urte berri on!

GOIENKARIA egiten dugunok oporrak hartuko ditugu ondorengo egunotan. Hortaz, datorren egubakoitzean ez duzue aldizkaririk jasoko. Hurrengoa urtarrilaren 10ean jasoko duzue.

DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

# Esperientzia ona bezain gogorra

## Ibarreko 210 lagun izan dira Galiziako hondartzak garbitzen

XABIER URZELAI

Berba asko behar dira Galiziako kostaldera hurreratu, egun batzuk igaro eta itzultzerakoan hantxe bizi izandakoa azaltzeko. Berba asko marea beltzak eragin duen kaltea zenbaterainokoa den adierazteko, baita hondartzak ikusterakoan sentitzen dena azaleratzeko ere. Guztia laburtzeko berba bakarra aukeratzekotan, *elkartasun* berba da egokiena.

Boluntarioendako asteburu gogorra izan da: bidaia luzea, eta lan asko egiteko. Edozelan ere, errepikatzeko moduko esperientzia izan da. Eta, neurri handi baten, horixe bera behar da; komunikabideak gai horrekin aspertzen direnean, dagoeneko albiste ez denean boluntarioek behera ez egitea, alegia. Egia da antolaketa beste era batekoa izango balitz, emaitzak hobeak izango liratekeela; hau da, lan handiagoa egingo litzatekeela, eta hobeto. Hangoek esaten dutenez, marea beltzari aurre egiteko gertu ez zeuden moduan, marea zuriari –boluntarioei– beharrezko guztia emateko ere ez daude gertu. Horretan dabiltza, baina ia laguntza barik. Tamalez, hobeto antolatzeko denbora luzea dute, arazoak luze joko du-eta.



XABIER URZELAI

Fuel-olioa batzea ez da batere lan erraza, eta zamaketa lanak egiteko jende asko behar da.



### AINARA UDAONDO
HUHEZI-KO LANGILEA

*"Ez dugu lanordu askorik egin, baina lana gogorra izan da"*

**Zelan animatu zara Galiziara boluntario gisa joatera?**

Udan, Galizian izan nintzen, oporretan, eta komunikabideetan ikusitakoa bertatik bertara bizi gura nuen.

**Hondartzak uste baino hobeto ala gaizkiago aurkitu dituzu?**

Egia esan, uste nuen okerrago egongo zirela, telebistan oso irudi gogorrak ikusi ditugu-eta. Baina horrekin ez dut esan gura egoera larria ez denik.

**Gogorra izan da garbiketa lanak egitea?**

Bai, oso lan gogorra da. Ez dira lanordu asko izan, baina lan deserosoa da. Denbora guztian izerditan geunden, eta gutxi aurreratzen genuen. Ez dugu askorik egin, baina pozik.



### LUXIO UGARTE
IRAKASLEA

*"Helburuetako bat bete dugu: esperientzia berria bizi izatea"*

**Zelako esperientzia izan da?**

Esperientzia berria bizi izatera joan gara, eta helburu hori bete dugu. Esperientzia berria eta ona izan da, baina, aldi berean, gogorra ere izan da. Galiziako kostaldeko zatitxo bat zelan dagoen ikusi dugu. Egun baten hondartza bat garbitzen izan ginen, eta hurrengo egunean, hara itzuli ginenean, aurreko egunean aurkitu genuen bezala zegoen, edo okerrago.

**Antolaketa ona izan da?**

Egia esan, antolaketa ez da oso ona izan. Argi dago herri txikiak direla eta boluntario asko etorri garela lanera. Baina, era berean, hilabete pasatu da, eta antolaketa hobea izan beharko litzateke.



### LAURA PEREZ
IRAKASLEA

*"Hangoekin ez dugu traturik izan, eta hori sumatu dut faltan"*

**Uste baino lan handiagoa ala txikiagoa egin duzue?**

Dezente txikiagoa. Bi egunean bost ordu baino ez dugu eman lanean, eta denbora luzea galdu dugula esango nuke.

**Lan egiteko beharrezko guztia izan duzue?**

Baietz esango nuke. Lehenengo egunean kuboak eta palak falta ziren, baina bigarrenean hobeto ibili gara.

**Zer sumatu duzu faltan?**

Hango jendearekin ez dugula traturik izan. Goizetan lana ondo eginez gero, arratsaldeak zerbait egiteko aprobetxatu genitzake; hondartza gehiago ikusiedo. Orokorrean, baina, oso esperientzia ona izan da.



**EMILIO LOURO**
KOFRADIAKO IDAZKARIA

## *“Gure esku dago hau aldatzea”*

**Arrantzan egiten ez duten arren, Lirako arrantzaleak ez dira egoten gora begira, eta kofradian arrainik ez badago ere, egunero dago zeregina.**

**Zelan zaudete galiziarrok?**
Hemengo herritarrak oraindik ez dira konturatu zer gertatu den. Komunikabideetan ematen dutena ikusten dute, hondartzak zelan dauden ikusten dute, baina oraindik ez dakite zer gertatu den. Sinetsi ezinda daude, eta denbora beharko dute gertatu denaz jabetzeko.

**Zein da Liraren etorkizuna?**
Etorkizuna beltz ikusten dut. Atzo, *La Voz de Galicia* egunkariak ondoko titularra zekarren: *Lira maletak egiten ari da*. Izenburu horrek hotzikara ematen zuen, baina, zorionez, jendea oraindik ez da inora joan.

**Lan egiteko ordua da, baina baita erantzukizunak eskatzeko ere.**
Argi daukat orain lan egin behar dugula, baina gobernuko politikarien jarrera ahaztu barik. Lotsagabe horien inkonpetentziagatik gertatu da hau guztia, eta ez da posible gure bizitzak horien mende egotea. Gure esku dago hori aldatzea.



XABIER URZELAI
Kazetaria

# *Ibarrekoek Galiziara egindako elkartasun bidaia, egunez egun*

**Ibarreko boluntarioak bi egunez aritu dira Lirako hondartzak garbitzen, eta hori zen helburua. Lanordu horiek, baina, bidaiaren zati bat baino ez dira izan. Egunez egun Galizian bizi izandakoaren kontakizuna duzue.**

20 / EGUBAKOITZA

## BIDAIA LUZEA AURRETIK

Egubakoitzean, eguerdiko hirurak laurden gutxiagotan irten zen autobusa Oñatitik. Arrasate eta Eskoriatzatik boluntarioak jaso eta gero, arratsaldeko hiru eta erdietan ekin genion bidaiari, bidaia luzerari.

Bidean hiru geldiune egin eta gero, Galizian ginen. Galizian egoteak, baina, ez du esan gura kostaldean zaudenik, eta, galdu samar ibili eta gero, goizeko hiru eta erdietan iritsi ginen Carnotako kiroldegira, gure ostatura. Lo egiteko lekua hartu –eskertzekoa zen koltxonetak egotea–, eta goizeko lauretan kiroldegiko argiak itzali zituzten. Hurrengo egunari aurre egiteko asmoz, berehala lokartu ginen; gehienok bai, behintzat.



21 / ZAPATUA

## HAIZEA ETA EURIA

Gauean hotz egin zuen, eta jaiki ginenean, goizeko zortzi eta erdietan ez zen giro kanpoan. Gauzak batu eta gero, herriko ikastetxera joan ginen gosaltzera. Handik kiroldegira igo ginen berriro, boluntarioek lan egiteko beharrezko zituzten lanjantziak hartu behar zituzten-eta.



Garbiketa lanak eguerdiko hamabietan hasi zituzten, eta arratsaldeko hirurak arte gelditu barik ibili ziren lanean Porto Balea eta Playa das Gavotas hondartzetan.

Arratsaldeko lauretarako kiroldegian ziren guztiak. Azkarrenek ur beroa izan zuten dutxatzeko eta gainerakoek ur hotzarekin konformatu behar izan zuten. GOITBko eta GOIENKARIAko kazetari eta teknikariok gure kontu pasatu genuen eguna. Ibarreko boluntarioekin izan ginen, baina inguruko hondartzak ere bisitatu genituen, Coruñako Unibertsitateko irakasle Antonio García Allut-i esker.



Arratsaldean, berriz, Lirako bi kofradietako baten izan ginen, hango arduradunekin eta arrantzaleekin berbetan. Arratsaldeko lauretan, eta enpresek emanda, boluntarioendako janari eta edariekin betetako kamioiak iritsi ziren kofradiara, eta kofradiakoek zamaketa lanak egin zituzten.

Arratsaldean, lasaitasuna izan zen nagusi. Atseden hartzeko eta indarrak berritzeko ordua zen. Ogitartekoa jan eta herritik bueltatxo bat emateko aukera izan zen.

22 / DOMEKA

## HOBETO ANTOLATUTA

Domekan ere goizeko zortziak aldera piztu zituzten kiroldegiko argiak. Boluntarioek beste lanegun bat zuten aurretik, eta dagoeneko bazekiten lan gogorra zela.

Ikastetxean gosaldu eta gero, berriro ere lanjantziak hartzeko ordua iritsi zen. Boluntarioei inork ez zien esan barruko lan-jantziak zaintzeko, ahal zen neurrian ez zikintzeko. Kanpoko lan-jantzi zuriak derrigor bota behar ziren zakarrontzira, baina barruko lan-jantziak erabiltzeko moduan egongo ziren, zaindu izan balira.

Informazio gabeziaren erakusle argiena izan zen hori, eta boluntarioek berriro ere lan-jantzi berriak hartu behar izan zituzten. Boluntario asko haserre zeuden, gauzak aprobetxatu egin behar ziren-eta.

Goizeko hamaika eta erdietan iritsi ziren hondartzara. Domekan ere hiru orduz izan ziren lanean, baina antolaketa aldetik gauzak asko aldatu ziren; baliabide gehiago zituzten eskura. Norberak egin beharrekoa argiago zegoen, eta lanak bukatutakoan boluntarioak garbitzeaz arduratzen zen talde bat zegoen.



Domeka goiza Carnotako ingurumen zinegotzi Marcelo Saboridorekin eta ingurumen teknikari Maria Garcíarekin egoteko aprobetxatu genuen guk. Haien eskutik Carnotako herria eta hango egoera hobeto ezagutzeko aukera izan genuen. Hori gutxi izango balitz, Begonha Caamanho Galiziako telebista publikoko kazetariarekin ere izan ginen. Besteak beste, Galiziako komunikabide askotako kazetariek jasandako presioen gainean egin zigun berba: manipulazioa, distortsioa, gauzak ezkutatu nahia... Denetik egin du, bai, Galiziako telebista publikoak, baita beste medio batzuek ere.



Arratsaldeko bostetan, kiroldegira iritsi ginen. Ordurako boluntarioak atseden hartzen zeuden, arratsaldeko sei eta erdietan batzarra geneukan-eta. Etxera noiz bueltatu zen erabaki beharrekoa: afalostean edo hurrengo goizean. Horrela, autobus bi domeka gauean itzuli ziren eta beste biak, astelehen goizean. Joaneko bidaia luzea izan bazen, itzulerakoa ez zen motzagoa izan, baina gauez etorri ginenok ederto eskertu genuen.

ANTOLAKETA

### Lan egiterako orduan boluntarioek informazio gutxi izan dute

**Galiziako gobernua ezer gutxi egiten ari da, eta herritarrak arduratzen dira, dauzkaten baliabideekin, boluntarioek beharrezko guztia izan dezaten.**

**Boluntarioek informazio gutxi izan dute: lan-jantziak zelan jantzi, hondartzan lana zelan egin... Inor ez da horretaz arduratu, eta hondartzetan teknikoak falta dira; garrantzitsua da lana zelan egin behar den jakitea. Boluntario kopurua baino gehiago, baliabide gehiago behar da.**

LANEGUNAK

### Lan egiteko, domekan, zapatuan baino askoz hobeto

**Boluntarioek domekan ez zuten zapatuan baino lanordu gehiago egin, baina lan egiteko baliabide gehiago izan zituzten. Antolaketa hobea izan zen, eta, besteak beste, suhiltzaileak arduratu ziren horretaz.**

**Domekan, eguraldiak dezente lagundu zuen, eguraldi ona izan zen. Zapatuan, berriz, euria eta haizea izan ziren protagonistak. Horrez gain, boluntarioak ordubetean autobusaren zain izan ziren hondartzan, eta ordu luzea izan zen.**

MILITARRAK

### Zapatuan, lanean izan ziren; domekan ez zen inor agertu

**Carnotarrak ez zeuden batere pozik militarrekin. Lo egiteko euren dendak ekarri beharrean, boluntarioen lekuak betetzen zituzten. Egun batzuk lehenago euren kamioi batek jasandako erasoa zela-eta, militarrak ez zeuden batere pozik. Joatea erabaki zuten, eta kiroldegiko koltxonetak eraman gura zituzten. Baina alkateak aurre egin zien eta koltxonetak kiroldegian geratu ziren. Hori bai, ikastetxeko ahulki eta mahai guztiak eraman zituzten.**

POLITIKA

### Galiziarren aldarrikapena: ‘Políticos: munca maís’

**Aldarrikapen hori Carnotako hainbat hormatan azaltzen da. Hango herritarrekin berba eginez gero, gobernuari kritikak dira nagusi. Baina, horrekin batera, hangoek argi daukate zaila izango dela gauzak aldatzea. PPk indar handia dauka Galizian, nagusikeria handia dago, eta jendea beldurraz bizi da.**

**Gazteek bultzatu behar dute aldaketa, nagusiek aldatzea gaitzagoa da-eta. Gazteak, baina, Galiziatik kanpo daude, lanean.**

ELKARRIZKETA/EUSKO IKASKUNTZAKO PRESIDENTE IZENDATUKO DUTE BIHAR JABIER RETEGI

**JABIER RETEGI**/MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTORE IZANDAKOA

# *“Gure nahia da Eusko Ikaskuntza sortu zeneko espiritu berritzailea berreskuratzea”*

OXEL EROSTARBE

**Bihar, zapatua, eguerdian, ezohiko batzar orokorra egingo du Eusko Ikaskuntzak Donostian. Mondragon Unibertsitateko errektorea izan den Jabier Retegi Eusko Ikaskuntzako presidente aukeratuko dute. Horretarako, batzarraren babesa jaso behar du Jabier Retegiren hautagai-zerrendak.**

**Zuena da aurkeztu den hautagai-zerrenda bakarra. Ziurrenik zu aukeratuko zaituzte.**

Bakarra dagoenez, presidente izateko aukerak ditudala argi dago. Hala, batzar nagusiak gure hautagai-zerrenda onartzen duen ikusi behar.

**Azken urteotan Juan Jose Goirienak bete duen kargua hartuko duzu. Ildo beretik jarraituko duzue?**

Erakunde hau 1918an sortu zen. Orduko espiritua berreskuratu gura dugu. Gizarte aldakor



GOIENKARIA

*“Eusko Ikaskuntzak, gizartean dauden gainerako erakundeek bezala, aldaketak behar ditu”*

*“Lagun asko dauzkat erakundean, eta aspalditik ari ziren parte hartu behar nuela esaten”*

baten aurrean gaude, eta orain arte egindako bidetik jarraitzea ez da nahikoa. Hausnarketa estrategiko sakona egin behar dela pentsatzen dugu.

**Hortaz, erakundea etorkizunerako gertatu gura duzue.**

Erakundeak aurrera begira duen eginkizuna zehaztu gura dugu: lehenik, erakundea barrutik sakon ezagutu beharra dago; horren ondoren, egin beharreko aldaketak zehaztuko ditugu. Eusko Ikaskuntzak, gizartean dauden gainerako erakundeek bezala, aldaketak behar ditu. Gure nahia da erakundea sortu zeneko espiritu berritzailea berreskuratzea. Etorkizuneko gizarte ereduaren gainean gehien dakitenak erakundera batu gura ditugu. Erakundearendako beste ikuspegi bat ezartzeko bidea izango da.

**Erretiroa hartuta, nolatan sortu zaizu Eusko Ikaskuntzako presidente izateko aukera?**

Lagun asko dauzkat erakundean, eta aspalditik ari ziren parte hartu behar nuela esaten. Behin erretiroa hartuta, euren proposamena onartu dut. Batzarrak hala onartzen badu, gertu nago aurrerantzean nire lanak eta asmoak honetara bideratzeko.



BRITE SMILE

Hagin zuritzea

Egizu irribarre gabon jai hauetan hagin zuri eta diztratsuak dituzula.
Ordubeteko saioan bakarrik.
Azken teknologiako LED sistema gela eta argi bereziarekin

943-716-071

Mª Angeles Mendizabal aho sendagilea
Arantzazuko ama 2 behea - Oñati

900-176-453
(doako deia)
www.britesmile.es

ANTZUOLA

## Bihar, zapatua, ospatuko dute Uzarragaren 100. urteurrena

1902. urteko abenduaren 28an inauguratu zuten Uzarragako eliza berria. Hori dela eta, hainbat ospakizun egin dituzte herrian, eta bihar, zapatua, bukatuko dira, elizkizun batekin.

Goizeko 11:30ean egingo dute meza, eta Juan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzaina hantxe izango da. Elizkizunaren ostean, Oihane Toledo sopranoaren eta Borja Rubiños pianojotzailearen emanaldia entzuteko aukera izango dugu. Bestalde, Uzarragaren gaineko argazki erakusketa zabalik egongo da domekara arte. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

## 'Aramaioko Mapa Toponimikoa' aurkeztuko dute urte hasieran

Denbora luzean lanean ibili eta gero, *Aramaioko Mapa Toponimikoa* aurkeztuko du Aramaioko Udalak. Aramaio ezagutzeko aukera eta galtzear egon daitezkeen zenbait izen berreskuratzea izan dira, besteak beste, helburuak. Gabonetan herriko etxebizitzetara eta baserrietara bidaltzen ari dira mapa hori; edozelan ere, aurkezpen ofiziala egingo dute. Datorren urtarrilaren 16an izango da, kultura etxean, 18:30ean. Aramaioko Udaleko ordezkariekin batera, han izango dira, besteak beste, Euskaltzaindiko zenbait kide. /U.M.

ELGETA

## Goibeko elkarteak 18.000 euro banatu ditu Gabonetako loterian

51.203, hau da, Gabonetako loteriaren zozketako 18.000 euro, Elgeta aldera ekarri dituen zenbakia. Goibekok salgai jarritako txartelek lehenengo sariaren bi zenbaki eta bosgarrenaren hiru dituzte. Txartel bakoitzaren jabeak 26,4 euro irabazi ditu. Goibeko abenduaren 30ean hasiko da irabazitako dirua elgetarren artean banatzen. 19:00etatik 20:00etara, GOIBEKOKALEren bulegora joan beharko dute txartelak dituztenek. Urtarrilean, bariku eta zapatu guztietan jasoko dituzte. /O.E.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Erakusleiho Lehiaketako irabazleak erabaki dituzte dagoeneko: Pascual telefonoak, Kanela dekorazioak, Gisasola ferreteria, Ninika lora denda eta Baster arropa denda

Bost komertzio horiek izan dira, epaimahaiaren iritziz, Gabonetarako erakusleihoa dotoreen apaindu dutenak. Irabazleei 150 euro eta trofeoa eman zizkieten, eta sari banaketa astelehenean izan zen, kultura etxean. Sariak Nere Amaia Zabala kultura zinegotziak banatu zituen, eta saria jasotzera komertzio horietako ordezkari bana hurreratu zen. Argazkian, ezkerretik eskumara: Nere Amaia Zabala kultura zinegotzia, Jero Casquero (Pascual telefonoak), Andoni Berraondo (Kanela dekorazioak), Ander Berraondo (Gisasola ferreteria), Maite Maiztegi (Ninika lora denda) eta Maria Jesus Ibáñez (Baster arropa denda). Bestalde, Kanela dekorazioak Gipuzkoako Bazkundeak antolatutako Erakusleiho Lehiaketako hirugarren saria ere jaso du./M.B.

ARRASATE

# Ume eta gurasoen arteko harremanetan laguntzeko eskolak

Udaleko Ongizate Sailak 0-6 eta 7-12 urte dituzten semealaben gurasoendako lantegiak antolatu ditu. Semealabekiko dituzten kezkak argitzen laguntzeko eskolak dira. Urtarril bukaera aldera edo otsail hasiera aldera hasiko dira.

Oro har, seme-alabekin modu positiboan jokatzeko orientabideak ematea da helburua. Derrigorrezko gaiak zein aukerazkoak landuko dituzte eskoletan. Horrela, drogen prebentzioa, hezkidetza (emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna) eta sexualitatea derrigorrez landuko dituzte. Hortik aurrera, gurasoek aukeratu ahal izango dute zein gai landu gura duten (adibidez, umeen garapen psikologikoa, autoestimazioa zelan indartu, arauak modu hezgarrian ezartzeko irizpideak...).

Eskolak bi mailatan banatuko dituzte: hastapen mailakoak (informazio orokorragoa gura dutenendako, edo ordutegi arazoak dituztenendako...); eta sakontze mailakoak (iaz eskoletan parte hartu zutenek aurrera jarraitzeko).

### ZELAKO ESKOLAK

Bederatzi saio inguru izango dira, astero bat. Saio bakoitzak ordu eta erdi iraungo du. Ikastaroak Lantegi Eskolako ikasgeletan emango dituzte, eta sei euroko matrikula ordaindu beharko da.

Interesatuek 943 79 09 00 telefonora deitu eta prebentzio teknikariagatik galdetu behar dute edo *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbidera mezu bat bidali behar dute. /U.M.

**Zertzelada**

**Aurrerago, 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako eskolak ere egingo dituzte; otsail bukaera aldera izango da hori.**

OÑATI

# Herriko hainbat artistaren lanak ikusgai daude gaztelekuan

Gazteleku berrian ekitaldi ugariz gozatu ahal izan dugu orain dela hilabete inauguratu zutenetik.

Orain, joan den astea ezkero, hainbat artista oñatiarren lanak ikusgai daude gaztelekuko kuboan. Horietako artista batzuk ikasleak dira; beste batzuk, berriz, artearen esparruko profesionalak. Besteak beste, honako hauen lanak ikus ditzakegu: Amaia Igartua, Ana Lezeta, Jabier Erostarbe, Joxean Iza, Roberto Maiztegi, Xabin Egaña, Antton Ugarte, Iñaki Gereka, Fernando Goñi, Alberto Alonso eta Mikel Zabalaren artelanak, hain zuzen ere. Abenduaren 29ra arte egongo da zabalik erakusketa. /AINTZANE IRIZAR



LEIRE KORTABARRIA

**Hilaren 29ra arte egongo da zabalik erakusketa.**

ARETXABALETA

## Iban Da Silva arrasatearra da Aretxabaletako udaltzain berria

Iban Da Silva 23 urteko arrasatearrak udaltzain lanak beteko ditu Aretxabaletan urtarriletik aurrera. Ibanek Alberto Zillaurren, Martin Garai eta Jose Nuñez udaltzainekin batera lan egingo du. Udaltzain izateko probak azaroan hasi zituzten 13 lagunek. Orduz gero, hainbat azterketa egin behar izan dituzte: besteak beste, Euskararen Bigarren Hizkuntza Eskakizuna ziurtatzeko proba, azterketa teorikoak eta proba fisikoak. Eta horiek guztiak gainditu ostean, Iban aukeratu dute udaltzain izateko. /A. L.

ESKORIATZA

## Dorleta paper dendari eman diote erakusleihorik onenaren saria

Kultura batzordeak Erakusleiho Lehiaketa antolatu du aurten ere. Gabonak direla aitzakia hartuta, herriko zazpi dendak erakusleihoak apaindu eta parte hartu dute lehiaketan. Epaimahaiaren arabera, guztien artean erakusleihorik onena Dorleta paper dendak jarritakoa izan da. Bigarren saria Zubia harategiari eman diote eta hirugarrena, berriz, Edurne estetika zentroari.

Kultura teknikariaren arabera, herrian komertzio askorik ez badago ere, gero eta denda gehiagok hartzen dute parte lehiaketan./A.G.

LEINTZ GATZAGA

## Batzordekide aldaketa eta Gabon jaietarako programa GURELen

GURELek, Gatzagako Gurasoen Elkarteak, batzordekideak aldatu zituen azkeneko batzarrean. Horrela, Rosa Urretak eta Mamen Calderak Eneka Zancadari eta Ana Esnali utzi diete lekua datozen bi urteetarako. Bestalde, Olentzero eguna igarota eta Erregeena bitartean, GURELek umeendako hainbat ekintza antolatu ditu: Gasteizera joango dira, zinemara egun baten eta patinatzera beste baten. Eta ipuinak entzun eta pastelak egiteko aukera ere izango dute, besteak beste, herriko umeek. /A.G.

# GABON
# GABON



**SANTAMAS EPEL ETA ALAIAK** Iaz baino eguraldi dezente epelagoa egin du aurten Santamasetan. Giroa ere, beroa.



**DEBAGOIENDAR EKOIZLEAK, ONDO** Denetik eta onetik Santamasetako ferian. Ibarreko baserritarrak sarituak izan ziren.



**IHES?** Behi batek ihes egin zuen. Honek formal itxura du.



**BASERRITAR JANTZITA** Dotore atera ziren arrasatearrak.



**GATZAGAR PILOA** Goizean goizetik atera ziren kantura gatzagarrak abenduaren 24an.



**GOIENKARIAN ERE BAI** Kalez kale, etxez etxe..., eta bulegoz bulego ere bai, kantuan.

# IAK
# I!



**ESKOLETAKOAK ERE, KANTUAN** Ikas bidaia egiteko sosak batzeko sasoi aproposa izaten dira gabonak.





**UMERIK EZ DAGOELA?** Ba Olentzerok erakarri zituen Elgetan.



**TXORONPIO ETA TXORONPIA** Mondragoeko umeekin.



**HAUR PARKEAK GABONETAN** Ibarreko herri gehienetan izango dira gabonetan haur parkeak. Argazkian, Bergarakoa.



**ARRASATE** Jose Ramon Otamendi harategiak jaso du hirugarren saria.



**NESKA MUTIKOAK KANTARI** Herri askotan atera ziren kantura neska mutikoak, gabon egunean.

# Zabalik



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

## Tren zaharra

**1967ko Gabon zahar egunean, gure kopak mundutarren osasunerako altxatzen ari ginen batera, betiko joan zitzaigun tren zaharra, hamarkadetako erabiltzaileei erakutsi zintzotasunarengatik inoren eskerronik jaso gabe. Axolagabetasunean. Azkeneko bidaia, Nafarroa etorbideko trenbidetik igarotzean txistualdi ilun batez iragarri ziguna, gaueko 09:30ean egin zuen. Eduardo Dato espainiar diputatuaren presentziarekin 1919ko irailaren 3an inauguratu zen zerbitzu publikoko azken bezeroa zein izan zen ez dago inon idatzita.**

**Hogeita hamabost urte eman dira ordudanik eta arrasatearron erdiak ez daki zer suposatu zuen garraio mota hark gainontzekoontzat. Ia-ia mende erdi bateko bizitza erritmoa markatu zuen tren txiki, atsegin eta garbi hark, geure usadio eta azturetan eragin zuzena irradiatu zuelarik. Union Cerrajeraren industria orubeetara egokitua hastapenetatik, enpresa enblematikoaren maldan beherako inflexio puntuarekin heldu zitzaion hilzoriko kanpaiaren hots ehorzlea. Trenaren soinua gure nortasunari itsatsita hazi ginenok badakigu jakin zein nolako aldaketa ekarri zuen herriko bizimodura haren desagerpenak. Eta aipatu industria eremuaren ezabaketa progresiboak are garbiago marrazten du trenaren hutsunea, oroimen kolektiboan gero eta arrasto zirriborrotsuago geratzen den bitartean.**

**Oraindik ere, etxeko leihora ateratzen naizen batzuetan, une batetik bestera tren geltokitik zerbitzu berriren bati abiada ematera doazela iruditzen zait. Baina ez da horrela gertatzen. Eta aspaldiko sentsazio ugariren zurrunbiloan abandonatuta, nire bizitzaren bi heren trenik gabe eman ditudala oroitzen dut, nire harridurarako.**

# Gutunak

## ELAY Taldeko euskara-planak 10 urte: Santi Zabaletaren konpromisoa eredu

Orain dela hamar urte esperientzia iradokitzaile bat abiatu zen euskalgintzan. Elay Taldeko enpresetan eguneroko jardunean euskararen erabilera areagotzeko lehen ekimen planifikatua abian jarri zen. Euskara-plana jaio zen.

Esperientzia pilotua zen. Elhuyarren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren arteko elkarlanean lan-mundura egokitutako metodologia landu eta egokitzeari ekin genion, hizkuntzaren erabilera sustatzea eta euskara enpresaren gestioan txertatzea ardatz nagusi zituena. Era horretara abiatu zen Elay taldeko euskara-plana, beraiek ere garbi baitzuten euskara eguneroko jardunean integratzeko apustu serioa egin nahi zutela.

Hamar urte hauetako ibilbidean etenik ez da izan Euskara Planean eta horrek argi adierazten du Elay Taldeko Zuzendaritza Kontseiluaren eta, bereziki, Kontseilari delegatuaren, Kudeatzaileen eta giza talde osoaren aldeko jarrera, konpromiso eta esfortzua.

Elay Taldea bide-urratzaile izan dugu. Haren jarraian etorri ziren: CAF, Ikerlan, Arlan, labein, Irizar, JMA, Fagor eta MCC, besteak beste. Enpresa horiek euskara-planen metodologia-eredua landu eta frogatzeko aukera eman ziguten. Oinarri sendoak ezarri eta metodologia baliagarria zela baieztatzeko esperientziak izan zian ziren horiek gutiak. Eta ondorioak ez dira nolanahikoak izan, izan ere, gaur egun Euskal Herriko ekonomiaren eragile garrantzitsu diren 60 enpresak baino gehiagok heldu baitiote erronkari, orduan landu genuen ereduari jarraituz.

Elay Taldeak bide-urratzaile izaten jarraitu du, Bai Euskarari "Guk zerbitzua eta lana euskaraz" ziurtagiria lortu duen lehen enpresa izan dugu oraingoan ere.

Datozen 10 urteei begira jarrita dago Elay Taldea, eta prest orain arte bezala arrakastaz aurrera egiteko. Baina gainerako enpresa eta erakunde publikoek egingo dituzten urratsen menpe ere ikusten dute ondorengo urteetako beren eboluzioa Elayko kideek. Benetako sustatze-lana egiten dela ikusi nahiko genuke Elhuyarretik ere, orain artekoak, esperientzia isolatuak izan ez daitezen.

Aipatutako guztia errealitate bizi-bizia bada, neurri handi batean Elay Taldean azken urte hauetan kudeatzaile nagusi izan den Santi Zabaletaren ekimenari esker izan da. Bere hitzek dena esaten dute: "Ikuspegi zabaletik begiratuta, esan dezaket euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak, nolabait, langileen integrazioa bultzatu duela Elay Taldeko Lantegi Proiektuan. Administrazio Kontseiluak eta, bereziki, Kontseilari delegatuak proiektuari eman dioten laguntzak erraztu egin du langileek proiektu sinesgarri baten aurrean zeudela sentitzeko. Bestalde, enpresaren ikuspegitik, euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak aurrera egiteak, porrot egin gabe, enpresak proiektu aurrerakoiei aurre egiteko duen gaitasuna azaltzen du. Bost urte hauetan egin den lanak, Elay Taldea proiektu desberdinak garatzeko gauza dela erakutsi du". ("Euskara Arlo Sozioekonomikoan" liburutik hartua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, 1998).

Hazkundea eta nazioarteko bihurtzeko prozesua arrakastaz burutu ditu Elay taldeak, eta, aldi berean, Euskara Planean ere emaitza oparoak lortu ditu. Gaixotasun gaizto batek eraman du Santi Zabaleta, baina hark ereindako hazia ez da alferrik galduko; bere lana eta konpromisoa eredu direlako euskarak lan-munduan bide garrantzitsuak urratu ditzan.

Eskerrik asko, Santi, Elhuyarren izenean, zuretzat gure omenaldi xumea. Aberastasuna, ekonomiaren ikuspegitik ez ezik, hizkuntzarenetik ere ulertu duen enpresa-gizon handia.

ITZIAR NOGERAS BERRA
(ELHUYAR-EKO LEHENDAKARIORDEA)
Debagoiena

## Babes ofizialeko etxebizitzak

Zorte onekoak gara. Joan den martxoan egin zen zozketan tokatu zitzaigun etxebizitza bat Bergarako San Antonion. Lehenengo sorpresa Udalean bertan jaso genuen, etxeak erosteko ez, baizik eta alokatzeko zirela jakin genuenean. Harrezkero, gutako batzuek, etxea jantzi nahian, Etxebidera deitu genuen planoen eske; honi buruz inork ere ez zekiela ezer eta telefonoz telefono eduki gintuzten, departamentuz departamentu jaurtitzen zuten pilota beraien artean. Azkenean, lortu genuen erantzuna, ez zela posible etxeen planoak lortzea. Zergatia?: "Jasoko dituzue, ez kexatu horregatik", eta bla, bla, bla, ezer zehatzik ez.

Hainbat hilabete pasa ondoren, ekainetik hasita, gure kezka zera zen: noiz emango digute etxea? Udako oporrak gertu zirela-eta, hori jakitea ezinbestekoa zen gure planak egiteko. Hasi ginen orduan deiak egiten. Nik neuk ekainaren bukaeran deitu nuen eta esan zidaten handik hilabete batera edukiko nuela etxea. Orduan erabaki nuen oporrak herrian igarotzea, etxea txukun jartzeko. Baina abuztua joan zen eta etxerik gabe jarraitzen nuen. Beraz, beste dei bat egin nuen irailean, eta erantzuna berdina izan zen, hilabete barru edukiko genuela etxea; baina, urria ere pasa zen, eta berriro deitu nuen, oraingoan Gabonetarako edukiko genuela erantzun zidaten; baina, Gabonetan gaude eta oraindik etxerik gabe… Arazo teknikoak omen dituzte orain. Zer arazo mota? Erantzun zehatzik ez.

Hemen kontatutakoak zera adierazten du: Etxebidetik jasotzen ari garen informazio eza. Eta, hain zuzen, hori da salatu nahi duguna. Ez dugu erantzun zehatzik bat bera ere jaso, eta egoera hau jasaten ari garenok etxerik gabe jarraitzen dugu.

T.G.F. ETA BESTE HIRU BERGARAR
Bergara

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate

**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza

**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal

**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate

**HARPIDETZA ETA BANAKETA**
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola

**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeen ekimenez zabaldu zuten orain dela 3 urte inguru bidezko merkataritza denda Arrasaten. Eroskiren *hiper*-ean dago, sartu eta eskumara. Batez ere, Hego Amerikako, Ertamerikako eta Afrikako nekazariek ekoiztutako produktuak daude salgai denda horretan. Hara hurreratzen zaretenok Luzma Rojasek hartuko zaituztete. Luzma Rojasek berak eman dizkigu dendaren gaineko azalpenak.

ENEKO AZKARATE



ENEKO AZKARATE

# *Luzma Rojas*

DEBAGOIENEKO BIDEZKO MERKATARITZA DENDAKOA

# “Gure garapen moduagatik pobretuak dauden herrialdeei aukerak eskaintzea da helburua”

ZUZENEAN EKOIZLEARI EROSI

**“Denda horien bidez, bestalde, bitartekariak desagertu egiten dira: nekazariei, hau da, ekoizleei, zuzenean erosten diegu, gero dendan saltzeko”**

KALITATEA ETA ELKARTASUNA

**“Dendan erosten duenak, laguntzen du kalitatezko produktua erosteaz gain, herrialde pobretuetako langileen lan eta bizi baldintzak hobetzen”**

**Ibarreko gobernuz kanpoko erakundeek bultzatuta zabaldu zenuten denda. Esango diguzu zeintzuk diren erakunde horiek?**

Arrasateko Harreman, Serso eta Mugarik Gabeko Injineruak, Bergarako Fisc, Oñatiko Banoia, Aretxabaletako Hiruatx, Eskoriatzako Atxorrotx eta Antzuolako Anelkar. Orain dela 3 urte pasatxo zabaldu genuen, baina azken urtean asko hobetu dugu. Izan ere, orain, produktu gehiago ditugu salgai.

**Eta zer erosten du jendeak denda horretan?**

Batez ere, jakiak, edariak eta artisautza produktuak aurki daitezke denda horretan. Eta, hara hurreratzen direnek, batez ere, kalitatezko kafea, azukrea eta txokolatea erosten dituzte urtean barrena. Sasoi honetan, Gabonetan, ostera, artisautzako produktuak erostera ere asko joaten dira. Aurten, baina, alderantziz gertatzen ari da. Izan ere, jan eta edatekoak gehiago saltzen ari gara.

**Beste zer daukazue salgai?**

Batez ere, hori, aipatu dizudana: kafea, azukrea, txokolatea, hainbat likore, artisautzako produktuak, paperezko produktu batzuk (agendak, eta abar)… Guztira, zortzi edo hamar bat produktu ezberdin: janari eta edariak, bisuteria, osagarriak, etxerako gauzak, papergintza, artisautzako produktuak… Orain, gure asmoa da arropak ere saltzen hastea, baina gaitza da. Izan ere, dendan ez daukagu toki handirik. Edozelan ere, aipatu nahi dut Eroskik doan uzten digula lokala.

**Zeintzuk dira zuen bezeroak?**

Bi motatako bezeroak ditugu: alde batetik, zer denda mota den eta han erosten duenean zeri edo nori laguntzen ari den badakien jendea; eta, beste alde batetik, kalitatezko produktuak saltzen ditugunez, propio produktu horiek erostera doan jendea. Ingurumena errespetuz zainduz ekoiztutako produktuak saltzen ditugu bidezko merkataritza dendan.

**Baina zelako jendea joaten da dendara erostera?**

Denetik, baina medikuak, abokatuak, irakasleak-eta, asko. Batez ere, jende konprometitua.

**Nondik ekarritako produktuak dituzue salgai?**

Elikagai gehienak Ertamerikakoak eta Hego Amerikakoak dira. Kafea, esaterako, Hondurastik, Txiapastik eta Nikaraguatik ekartzen ditugu; azukrea, Ekuadortik, Kubatik…; galletak, Brasildik; txokolatea, kakaoa, Afrikatik…

**Gabonak direla-eta, gehiago saltzen duzue sasoi honetan edo badira urtean barrena sasoi hobeak?**

Bai, bai, Gabonetan salmentak igo egiten dira. Gabonetan, jeneralean, jendeak gehiago erosteko ohitura dauka, eta guregana ere jende gehiago etortzen da sasoi honetan. Bestalde, herriz herri bidezko merkataritzako azokak antolatzen ditugu. Joan den asteburuan, esate baterako, Aretxabaletan antolatu genuen. Jakin-min handia sortzen dute azoka horiek, eta gure helburuak ezagutarazteko eta produktuak saltzeko oso aproposak dira. Azoketan asko saltzen dugu, eta geroago eta jende gehiago hurreratzen da guregana. Herriz herriko azoka horien bitartez jendearengana hurreratzen gara eta ezagutzera ematen diogu nortzuk garen, zer saltzen dugun eta zer helbururekin, urtean barrena non gauden…

**Arrasateko Hiper Eroskin dago Debagoieneko bidezko merkataritza denda. Beste ibar batzuetan ere badaude?**

Bai. Gipuzkoan, esate baterako, bi denda daude, Donostian, bata Caritas-ena eta bestea Emaus-ena; bestalde, Zarautzen Caritas-ek beste denda bi dauzka; Bilbon lau denda daude; Gasteizen beste bi…

**Noiz sortu ziren lehenengo bidezko merkataritza dendak?**

Hemen, Debagoienean, orain dela 3 bat urte-edo hasi ginen, baina Europako herrialde batzuetan, Holandan eta Belgikan, batez ere, orain dela 20 bat urte hasi ziren. Apurka-apurka ezagutzen doan mugimendua da bidezko merkataritza.

**Zer ari gara ematen denda horietan erosten dugunean?**

Bidezko merkataritza denda horien helburua da lanpostu duinak sortzea; hau da, gehienbat gure garapen moduagatik pobretuak dauden herrialdeei aukerak eskaintzea, lan eta bizimodu duinak izan ditzaten. Esate baterako, kafearen prezioa merkatuak finkatzen du, eta sarritan hain prezio baxuetan saltzen da, nekazariek ez dute edukitzen ezta produkzio kostuei aurre egiteko ere. Orduan, bada, kooperatibak edo nekazari taldeak sortzen dira, eta ordaintzen zaie kafeagatik ohiko merkatu prezioan ordaintzen dena baino lau bider gehiago. Denda horien bidez, bestalde, bitartekariak desagertu egiten dira: nekazariei, hau da, ekoizleei, zuzenean erosten diegu, gero dendan saltzeko. Joan den astean, Venezuelako nekazarien kooperatiba bateko gerentea egon zen dendan. Eta, esan zigunez, hiru kontainer kafe saldu berri dituzte Holandan ohi baino lau bider garestiago. Honekin guztiarekin esan gura dut jendea ohartu egin behar dela erosten dugunean daukagun botereaz. Gauza bat erostea eta beste bat ez erostea norberaren eskuetan dago, eta, azken baten, kontsumitzaile garen neurrian, botere handia daukagu. Bestalde, bezeroak errespetua merezi du, eta uste dut ondo dagoela jakitea zerbait erosten dugunean nora doan diru hori.

**Horrek, baina, ez du esan gura dendan salgai dituzuen produktuak beste denda batzuetan dituztenak baino garestiagoak direnik, ezta?**

Garestiak badira, baina kalitatezko produktuak direlako. Gure produktuak, balio erantsi bat dute: dendan erosten duena, kalitatezko produktua erosteaz gain, herrialde pobretuetako langileen lan eta bizi baldintzak hobetzen laguntzen ari da. Hori beti izan behar dugu gogoan.

**Bidezko merkataritza dendako bazkideak ere badituzue.**

Bai. Urtean 6 euro bakarrik ordainduz gero, bazkide egin zaitezke, eta %5eko beherapena izango duzu gure produktuetan. Horretaz aparte, gai horren gaineko informazioa, aldizkariak, esku-orriak…, eskuratuko dituzu, aldiro, etxean. Dagoeneko 116 bazkide ditugu gure ibarrean, baina gehiago egin gura dugu.

**Bestalde, salmenta moduak zabaltzen ari zarete pixkanaka-pixkanaka, ezta?**

Bai, orain, enpresetako edo ezkontzetako opariak prestatzen edo eskaintzen ere hasiak gara.

**Denda bultzatzeaz gain, zer beste egiten duzue ibarreko gobernuz kanpoko erakundeek?**

Bueno, nork bere egitasmoak lantzen ditu herrietan, baina, horrez gainera, esate baterako, Elkartasun Eguna antolatzen du Harreman erakundeak Arrasaten, edo, orain, ibarreko artisten pintura erakusketa dago zabalik Arrasateko Harresi aretoan… Bestalde, Oñatin joan den astean egin zen Elkartasun Eguna, eta oso arrakastatsua gertatu zen.

## Podiuma

# Igor Arenaza | FUTBOLARIA |

**Bilbao Athleticen eta Eibarren bizi izan zituen garai onenak Igor Arenazak. Urtarrilean, Motrilera joan zen. Lehenago Logroñesen gertatu zitzaion moduan, arazo ugarirekin egin du topo.**

**Iazko denboraldian, taldea Bigarren A mailara igotzeko zorian izan zen. Eta denboraldi amaieran, presidente aldaketarekin, giroa nahasten hasi zen.**

Bigarren A mailara igotzea lortu ez genuenez eta bertako jendeak laguntzen ez zionez, bere proiektua bukatu zela esan zuen presidenteak. Presidenteak taldea utzi arren, semeak aurrera aterako zuela esan zigun. Taldea, ordea, txarto zuzendu dute, eta azken lau hilabeteotan ez digute soldatarik ordaindu.

**Taldea uzteko aukera ere eman zizuten orduan. Zer gertatu zen?**

Esan bai, baina handik irtetea negoziatu egin behar zen. Entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa ezagutzen nituen, Motrilen gustura nengoen eta fitxa ona nuen. Hala, talde bila hastea ez zuen merezi. Gaizki irten da, eta aurrera egin behar.

**Kobratzeke egonda, ez da erraza izango partiduak jokatzea.**

Jokalariok eta teknikariok gure eskuetan dagoen dena egin dugu. Bi prentsaurreko eman ditugu, hamar eguneko itxialdia egin dugu, alkatearekin batuta egon gara eta akzionistekin kirol elkarte bat sortu dugu, lortzen den dirua guk maneiatzeko.


GOIENKARIA
Gabonak direla-eta, Aretxabaletara etorri da Igor Arenaza.

**“Logroñesen eta Motrilen gauzak ez dira irten gura nukeen moduan. Une txarrak bizi izan arren, gauza positiboekin geratzen naiz”**

**“Zerbait irtengo dela ziur nago. Futbolean lau bat urte geratzen zaizkit, eta etxe ondoan eman gura ditut”**

**Logroñesen ere antzeko egoera bizi izan zenuen. Euskal Herritik irten zaren bakoitzean ez duzu zorterik izan.**

Egia da gauzak ez direla irten gura nukeen moduan. Une txarrak bizi izan arren, gauza positiboekin geratzen naiz. Ez naiz damutzen egindakoaz.

**Gabonak direla-eta, Aretxabaletara etorri zara. Egun hauek etxean eman ondoren, Granada aldera bueltatuko zara urtarrilean?**

Astean esan digute agian bi hilabete kobratuko ditugula. Entrenatzaileak dauka gai horien gaineko ardura. Etorri aurretik, harekin berba egin nuen, seguruenik ez nintzela bueltatuko esateko. Konponbidea dagoen ikusi behar. Horrenbeste gauza entzun ostean, esaten dutena betetzen dela ikusi arte ez diet sinetsiko.

**Beste talde baten jokatzeko derrigorrezkoa da askatasun-agiria delakoa. Eman dizute?**

Momentuz, ez. Ziurrenik, hangoak ez garen jokalariak ez gara itzuliko. Eta taldeak jokalari berriak ekarri gura baditu, askatasun-agiria eman beharko digu. Emango diguten esperantza daukat.

**Hortaz, hemen geratzeko asmoa daukazu. Futbolean jokatzen jarraitzeko talderen batekin berba egin duzu?**

Urtarrilaren 2an zabaltzen da jokalariak fitxatzeko epea. Zerbait irtengo dela ziur nago. Futbolean lau bat urte geratzen zaizkit, eta etxe ondoan eman gura ditut.

OXEL EROSTARBE

## VENTANAS SAN MIGUEL SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Aloña Mendi-Hernani: 1-2 / Aretxabaleta-Trintxerpe: 0-0 / Bergara-Tolosa: 1-0

### ASTEKO JOKALARIRIK ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Altzola | (Bergara) | 3 puntu |
| **2.** | Andoni Rodríguez | (Aretxabaleta) | 2 puntu |
| **3.** | Gotzon Urtzelai | (Aloña) | 1 puntu |


1
**Jon Altzola**
Bergara


2
**Andoni Rodríguez**
Aretxabaleta


3
**Gotzon Urtzelai**
Aloña

**Jon Altzola**
A ze urte amaiera egiten ari den Bergarako aurrelaria!

**Andoni Rodríguez**
Andoni izan zen UDAko jokalari eraginkorrena.

**Gotzon Urtzelai**
Nahiz eta sartu zuen golak ezer gutxirako balio izan.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| **2.** | Jon Altzola | (Bergara) | 6 puntu |
| **3.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| **4.** | Xabi Camino | (Aloña) | 5 puntu |
| **5.** | Kerman Azkarraga | (Aretxabaleta) | 4 puntu |


1
**Gorka San Vicente**
Bergara


2
**Jon Altzola**
Bergara


3
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra


2
**Xabi Camino**
Aloña


3
**Kerman Azkarraga**
Aretxabaleta

VENTANAS SAN MIGUEL
Iturriotz 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10
Ibargarai 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

## Kirolabur

### FUTBOLA/BERGARA

Gabonetako Gazte Mailako Txapelketa jokatzen dihardute atzo ezkero: lehen partidua Bergarak eta Abadiñok jokatu zuten. Irabazleak gaur, egubakoitza, Eibarren eta Realaren arteko partidua irabazten duenaren aurka jokatuko du finala. Eibarren eta Realaren arteko partidua Ipintzan jokatuko da, arratsaldeko bostetan. Eta finala bihar izango da, abenduaren 28an, Agorrosin futbol zelaian, arratsaldeko lauretan.

Urtero moduan, Bergara Kirol Elkarteak maila handiko taldeak batu ditu Gabonetako Gazte Mailako Txapelketan. Jokalari gazteak ikusteko aukera aparta.




### URREZKO AIZKORA/ARRASATE

Santamas jaien egitarauaren barruan, binakako III. Urrezko Aizkoraren lehen kanporaketa izan zen Arrasaten. Arrospide eta Peñagarikano Mindegia eta Larretxea baino hobeak izan ziren domekan, eta eurek irabazi zuten bigarren kanporaketarako txartela. Banakako proban eta txanda librekoan hamabosna enbor moztu zituzten bi bikoteek.

Urrezko Aizkoraren kanporaketaz gain, Inaxio Perurena harri-jasotzailea ikusteko aukera izan zen domekan. Leitzarrak bere marka pertsonal berria ezarri zuen, esku bakarrarekin: 205 kiloko harri zilindrikoa altxatu zuen. Harria erraz jaso zuela ikusita, urtea amaitu aurretik marka hobetzen ahaleginduko da Perurena.



### PILOTA/BERGARA

Bergara KEko urrezko ezteien ospakizunak amaierara iristen ari dira; izan ere, gaur arratsaldean pilotaren gaineko berbaldi batekin bukatuko dira ospakizunak. 19:00etan izango da, Miguel Altuna Institutuan.

Bixente Jauregik, Jose Mari Zezeagak, Jokin Etxanizek, Iker Muruamendiarazek, Miguel Etxanizek eta Luis Mari Gutiérrezek hartuko dute parte eta moderatzaile lanetan Koldo Aldalur ETBko kazetaria arituko da. Berbaldiaren ostean, Julio Askasibar, BKEko Pilota Saileko bultzatzaile nagusietako bat izan dena, omenduko dute.

BKEren 50. urtebetetzea dela eta antolatutako ospakizunei amaiera emango dien ekitaldian, eskubaloi, saskibaloi, igeriketa, xake eta areto futboleko sailak ere, gogoratuko nahi dituzte, elkarteko arduradunek..



## EUSKADIKO GAZTE ORKESTRAREN KONTZERTUA

**Urtarrilak 5**
**19:00etan**
**Amaia Udal Antzokia**

ARRASATEKO UDALA

**Kultura Saila**

Nats Nus Dantza Taldeak aurkezten du:

## HAURRENTZAKO DANTZA IKUSKIZUNA

**Abenduak 28, larunbata**
**17:00etan**
**Amaia Udal Antzokia**



Mila esker,
urte osoan zehar gugan
izandako konfiantzagatik

ZURIZURI
tindategia
labandegia

Berezao industrialdea 13
943 71 70 16
*zurizuri@terra.es*
**OÑATI**

# 2003 Zoriontsua denoi


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
2003an, e-debagoiena
zabalduz, bultzatuz... zure haritik
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Euskaltel
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

# Goienka2a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 27tik urtarrilaren 10era

Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a



## AIRE ZABALEKO JAIOTZAK

**Arrasate, Bergara, Oñati eta Gatzagako leku esanguratsuetan, Gabonetako jaiotzak ipini dituzte, jai hauen benetako esanahia berreskuratzeko asmoz.**

AZALA: IÑAKI ITURBE. ARGAZKIA: LEIRE KORTABARRIA.


Elkarlanean
ikastola
aurrera
Gure zorionik beroena Gabon hauetan
ARANZADI
IKASTOLA
Arizmendi
ikastola
elgoibar ikastola
TXANTXIKU
IKASTOLA

**GABONAK/ JAIOTZAK IPINI DITUZTE KALEAN, IBARREKO LAU HERRITAN**

# Jaiotzak, gure kaleetako apaingarri

HERRITAR BATZUEK JAIOTZA IPINTZEA DUTE GUSTUKO; ZORITXARREZ, BESTE BATZUEK HORIEK APURTZEA EDO OSTEA NAHIAGO DUTE

LEIRE KORTABARRIA

**Gabon jaiak gero eta dotoreagoak dira gure ibarrean. Olentzero, Bizar Zuri eta Errege Magoak urtero etortzeaz gain, urte batzuetatik hona, eta herritar elkarteei esker, Gabonetako jaiotza ibarreko lau herritan ikusteko aukera ere badugu. Antolatzaileek arazoak izaten dituzten arren, ohiturari eustea erabaki dute.**

Kaleetako jaiotzak ipintzen dituzten herritar taldeen oztopo handiena ez da izaten baliabide edo erakundeen laguntza edo baimen falta, baizik eta zenbaitek jaiotzak zelan tratatzen dituzten.

Horren eredu garbiena eta gogorrena Arrasaten dugu. San Andresko parrokiako elkarteak jaiotza ipintzen duen bigarren urtea da, eta bigarrenez ere hainbatek triskantzak egin dituzte: Jesus haurtxoaren irudia ostu eta errekara bota, irudiei ileordeak kendu, eta bestelako apurketak egin dituzte. "Ez dugu ohitura hau bertan behera utziko. Hori bai, gurako genuke udaltzainek zainketa lanak egitea, bistan dago-eta jendeak sekulako errespetu falta duela. Ikasketa eta diru asko bai, baina errespetua eta kultura, hori faltan dugula dirudi", salatzen du San Andresko parrokiako elkarteak. 3.600 euro inguru kostatu zaie jaiotza ipintzea.

**AURTEN, HAURTXOAREN HIRU IRUDI**

Bergaran San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak muntatzen du jaiotza, aurten hirugarren aldiz. Bergarako jaiotzak zazpi bat irudi ditu: Familia Sakratuaz gain, behia eta idia, eta artzaina ardiekin.

Bergarakoan ere, urtero, norbaitek Jesus umearen irudia bere lekutik kentzen du. Hori ikusita, elkartekoek umearen beste bi irudi erosi behar izan dituzte.

**OÑATI, AITZINDARIA**

Ibarreko jaiotza guztietatik urte gehien daramatzana Oñatikoa da; eta hura, oraingoz, seguru dago. San Andres etxebizitza kooperatibak ipintzen du urtero egurrezko jaiotza artistiko bat, Olakua auzoko ahateen putzuan. Uretatik kanpo gera dadin, euskarri baten gainean muntatzen dute irudia. Hamar bat urte daramatzate jaiotza ipintzen.

Eta orain dela hamar ez, baizik eta bi urtetik hona dute gatzagarrek euren Gabonetako jaiotza ere. Gurasoen eta umeen artean egiten dute, papera, trebezia eta irudimena erabilita. Eta Olentzeroren irudia ere egin dute.



**ARRASATEN, HOGEITIK GORA IRUDI** Ibarreko osoena da: 20tik gora irudi ditu. Familia Sakratuaren bi eszena ageri dira, baita Olentzero, Errege Magoak, aingeru batzuk, artzainak artaldeekin, izarra, herritarrak eta abereak ere. San Andresko Parrokiako elkarteak egin du, burdinaz, kartoiaz eta eskaiolaz. ATECE elkarteko kideek irudiak margotu dituzte. Joan den asteburuan apurketak egin zituzten jaiotzan; elkarteak berriro osatuko du jaiotza.



**OÑATIKOA, URMAELEAN** San Andres etxebizitza kooperatibak ipintzen du urtero jaiotza original hau Olakua auzoko ahateen urmaelean. Debagoieneko kaleko jaiotzen artean, urte gehien daramatza honek. Jesus umetxoa, Amabirjina, San Jose eta abereak agertzen dira egurrez egindako jaiotza polit honetan. Gauez, argia eta guzti dauka. Ur erdian dagoelako-edo, inork ez dio orain arte jaiotza honi kalterik egin.



**BERGARAN, JAIOTZA LEHIAKETA.** San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa antolatu du, Serafin Esnaola abadea zenaren omenez. 70eko hamarkadan ere egiten zuten lehiaketa hori, eta aurten, berreskuratzea zen asmoa. Zapatuan izan zen, eta lau jaiotza aurkeztu ziren. Antolatzaileen esanetan, gutxi dira, baina hala izan da iragarpena korrika eta presaka egin zutelako. Datorren urtean ere antolatuko dutela esan dute. Argazkian, San Antonioko auzokoek jartzen dutena.



**GURASOEK ETA UMEEK PRESTATUTAKO JAIOTZA** Gatzagako gurasoen elkarteak (GUREL) izan zuen herrian jaiotza ipintzeko ideia, iaz lehenengo aldiz. Horrela, bada, joan den zapatuan, herriko guraso eta umeak elkartu ziren eta jaiotza prestatu zuten: Jesus, Amabirjina eta San Jose, baita astotxoa eta idia ere, *papier machéz* egin zituzten, eta gero jantziak ipini zizkieten. Iaz bezala, orain ere Markole plazan dago jaiotza. Olentzeroren irudia ere hortxe dago, familia sakratuari lagun egiten.

*Apurketak galarazteko, arrasatearrek Udaltzaingoaren laguntza eskatu dute*

*Bergarako jaiotza hirugarren urtez ipini dute; aurten ere Jesusen irudia desagertu egin da*

*Oñatiko jaiotza da ibarreko aitzindaria, eta ahateen putzuan ipintzen dute*

*Gurasoek eta seme-alabek egin dute Gatzagako jaiotza, paperez eta irudimenaz*

# Abe. 27–Urt. 10

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Caixes* umeendako dantza emanaldia** egingo du Kataluniako Nats Nus taldeak bihar, zapatua, Amaia udal antzokian, 17:00etan.

### BERGARA

► ***Días de luna llena*** antzerki lana jokatuko du Interruptus taldeak gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Pailazoen emanaldia** izango da etzi, domeka, pilotalekuan, 17:00etan.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **DJ Juanma Ríos eta DJ Igor** disko jartzaileen emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztetxean.

► **Herriko abesbatzaren emanaldia** izango da etzi, parrokian, 19:00etan.

► **Txarly, Alain eta Gonzalo** disko jartzaileek musika emanaldia egingo dute etzi gauean, gaztetxean.

► **Jantxo, Txutxi eta Markel** disko jartzaileek Urte Zahar festa girotuko dute hilaren 31n, gauean, gaztetxean. Goiz partean, DJ Imaren emanaldia izango da.

► **Bjelav-eko umezurtz etxearen aldeko emanaldi lirikoa** izango da urtarrilaren 4an, zapatua, parrokian, 20:00etan.

### ARRASATE

► **Hainbat emanaldi** eskainiko ditu Arrasate Musikaleko bandak eta txistularien bandak abenduaren 31n. 11:00etan, kalejira egingo du; eta 13:00etan, txistulariekin batera, kontzertua, Amaia antzokian.

### BERGARA

► **Ozenki otxoteak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Mariaren Lagundia ikastetxeko elizan, 19:30ean.

► **Chucho eta Onddoren** emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan.

► **Sorkun bakarlariak *Ona* diskoa** aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Rock and roll bertsioen gaua** izango da bihar, zapatua. Bergarako hainbat musikarik osatutako taldeak joko du, Pol-Pol tabernan, 23:30ean.

► **Doctor Deseo taldeak** 2003ko emanaldi bakarra egingo du urtarrilaren 5ean, domeka, Jam aretoan, 23:30ean.

► **Los siervos de Dios taldeak** hainbat abestiren moldaketak joko ditu abenduaren 31n, martitzena, gaztetxean, 00:00etan.

► **Techno estiloko jaialdia** izango da abenduaren 31n, Jam aretoan, 01:00etan. Bederatzi disko jartzaile arituko dira.

► **Techno jaialdia** izango da urtarrilaren 4an, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan, bost disko jartzaileren eskutik.

### ESKORIATZA

► **Anarik** kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilaren 27an, gaztetxean, 22:00etan.

► **Gabonetako kontzertua** eskainiko du musika eskolako bandak etzi, domeka, San Pedro elizan, 13:00etan.

► **Sorkun bakarlariak eta Sharon Stoner taldeak** kontzertua eskainiko dute urtarrilaren 4an, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

### OÑATI

► **Easo abesbatza-kapera gregorianoak** musika emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 27an, Benediktarren elizan, 18:30ean.

► **Txistu kontzertua** izango da bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

► **Benito Lertxundi kantautoreak** *Nere Ekialdeak* bere lan berria aurkezteko kontzertua eskainiko du urtarrilaren 3an, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

► **Bertso jaialdia** izango da urtarrilaren 5ean, domeka, kiroldegian, 22:30ean.

► **Musika bandaren emanaldia** izango da hilaren 6an, Santa Ana antzokian, 12:30ean.

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Uzarragako eliza berritu zeneko 100. urteurrena** ospatuko dute bihar, zapatua. 11:30ean, meza izango da, herriko abesbatzarekin; 12:30ean, musika saioa Oihane Toledo sopranoarekin; eta 13:15ean, luntxa.

### DEBAGOIENA

► **Hiru Erregeak** iritsiko dira Debagoieneko herrietara, eta kabalgata egingo dute urtarrilaren 5ean, domeka. Arrasaten, 19:00etan abiatuko dira, Iturbide egoitzatik herriko plazara. 19:45etik aurrera, jaiotza izango da ikusgai, herriko plazan. Aretxabaletan, urtarrilaren 6an etorriko dira, 18:30ean; aurretik, Bizar Zurik jasoko ditu eurendako gutunak, abenduaren 31n, kiroldegian, 18:30ean. Bergaran, 19:30ean abiatuko da kabalgata, eta herriko kaleetatik ibiliko da; Oñatin ere, hilaren 5ean irtengo dira, parrokia ondotik abiatuta, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Vasco-Navarro trenaren** 75. urteurrena dela-eta, erakusketa dago Monterron jauregian, etzira arte, domeka.

### BERGARA

► **Idoia Elexpururen** margo erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, abendu bukaerara arte.









► MUSIKA

## FRANCISCO ESCUDERO KONPOSATZAILEARI OMENALDIA

Francisco Escudero konposatzailea joan den ekainean zendu zen, euskal musikagintzako piezarik esanguratsuenetariko batzuk sortu ondoren. Punta-puntako musikagile honek Arrasaterekin lotura estua izan zuen, eta herriko konposatzaile Juan Arzamendiren maisua izan zen. Hori dela-eta, omenaldia egingo dio Mondragoen Euskal Herriko Gazte Orkestrak, urtarrilaren 5ean, hango Amaia udal antzokian. Escudeororen *Arantzazu* poema sinfonikoa eskainiko dute, kontzertuan. Horren ondoren, beste bi pieza ere joko dituzte: Rimsky Korsakov errusiarraren *Espainiar Kapritxoa* pieza, eta Franz Schubert alemaniarraren *Osatugabea* sinfonia.

**Non:** Arrasaten, Amaia udal antzokian. **Noiz:** Urtarrilak 5, domeka. **Ordua:** 19:00etan. **Txartelak:** 12 euro; 10, aldez



## 'NATATXA' ANTZEZLANA, ESKORIATZAN

Txalo antzerki taldeak Eskoriatzan eskainiko du *Natatxa* ume eta helduei zuzendutako lana. Etzi izango da, domeka, kiroldegian, 18:30ean. Natatxak kalean aurkitutako txakurtxo bat hezitzeko dituen gorabeherak kontatzen dira, amak horretarako astebeteko epea eman dio-eta.

► **Azur Gallastegiren argazkiak** daude ikusgai gaztetxean, otsailera arte.

# DEIAK

### ANTZUOLA

► **Aitzgorrira irteera** antolatu du Arrola mendi taldeak hilaren 31rako, martitzena.
► **Jolas parkea** izango da zabalik urtarrilaren 3an, egubakoitza, pilotalekuan, 10:30-12:30 eta 16:00-19:00.

### ARETXABALETA

► **Poxpolin park** jolas parkea izango da zabalik abenduaren 28ra arte, domeka, kiroldegian.
► **Euskal presoen aldeko agerraldia** izango da abenduaren 31n, martitzena, herriko plazan, 19:00ak inguruan (Bizar Zuriren desfilearen ondoren).

### ARRASATE

► **Txikilandia jolas parkea** izango da urtarrilaren 2tik 5era, Musakolako kiroldegian, 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.
► **Errege kabalgatan** parte hartu gura dutenek urtarrilaren 3an izango dute entsegua, San Viator ikastolako egoitzan, 19:30ean.

### BERGARA

► **Umeendako jolas parkea** izango da hilaren 27an eta 28an, Labegaraietako kiroldegian.

### DEBAGOIENA

► **Zabor bilketa** 14:00etan egingo dute hilaren 31an, Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Elgetan. Hori dela-eta, zaborrak 12:00etatik aurrera utzi beharko dira. Arrasaten bakarrik, hondakin handiak ere bota ahal izango dira.

### ELGETA

► **Euskal presoen aldeko bilkura** izango da gaur, egubakoitza, herriko plazan, 20:00etan.
► **Gabonetako jolas parkea** izango da urtarrilaren 2tik 4ra, kiroldegian.
► **Gudari, preso eta errefuxiatuei omenaldia** egingo diete urtarrilaren 5ean, Intxorta mendian, 11:00etan.

### ESKORIATZA

► **Herriko umeei zuzendutako Gabonetako jolas parkea** dago zabalik etzira arte, domeka, Intxaurtxueta kiroldegian.

### OÑATI

► **Umeendako jolas parkea eta ur jokoak** izango dira gaur, egubakoitza, kiroldegiko kantxan (11:00-14:00 eta 16:30-20:00) eta igerilekuan (10:00-13:00 eta 15:30-18:00).
► **Kultura etxe berrituaren inaugurazioa** izango da urtarrilaren 3an, egubakoitza, Santa Marinan, 12:00etan.

# Zinema

## BERGARA

### ■ NOVEDADES

***Muere otro día***
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

## OÑATI

### ■ SANTA ANA

***Lugares comunes***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Peter Pan***
Domeka: 17:00.

### ■ KULTURA ETXEA

***Vete a saber***
Urtarrilak 9: 20:00.

## GASTEIZ

### ■ GURIDI

***Muere otro día***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.

***El refugio del mal***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00. 20:30, 00:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:30.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:45, 23:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:45.

***Happy times***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 19:45, 22:30.

***Barco fantasma***
Egubakoitza: 17:30, 01:00.
Zapatua: 20:15, 22:30, 01:00.
Domeka eta eguaztena: 20:15, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:15, 22:30.

***Ocho mujeres***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 19:45, 22:30.

***Santa Claus 2***
Egunero: 17:00.

***El planeta del tesoro***
Egunero: 17:00.

### ■ FLORIDA-GURIDI

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Dragon hill***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Una relación inesperada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Kamchatka***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Last orders***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Olentzero***
Egunero: 12:30, 17:00, 18:30.

### ■ STER ZINEMAK

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 19:20, 22:15, 01:10.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:25, 19:20, 22:15.
Martitzena: 16:25.
Eguaztena: 19:20, 22:15.

***Pianojolea***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 19:20, 01:10.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:25, 19:20.
Martitzena: 16:25.
Eguaztena: 19:20.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.
Martitzena: 16:20, 18:20.
Eguaztena: 18:20, 20:20, 22:20.

***Una pandilla de altura***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.
Martitzena: 16:05, 18:15.
Eguaztena: 18:15, 20:25, 22:35.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka eta astelehena: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:35, 00:00.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:35.
Martitzena: 17:30.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.
Martitzena: 16:15, 18:25.
Eguaztena: 18:25, 20:35, 22:45.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:15.
Domeka, astelehena eta eguena: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20.
Martitzena: 16:30, 18:25.
Eguaztena: 18:25, 20:20, 22:20.

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:50, 22:30, 01:10.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:10, 19:50, 22:30.
Martitzena: 17:10.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### ■ YELMO CINEPLEX

***Muere otro día***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:15, 18:50, 21:35, 00:15.
Domeka: 11:50, 16:15, 18:50, 21:35.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:15, 18:50, 21:35.

***El caso Bourne***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:55, 22:20, 00:40.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 19:55, 22:20.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 15:55, 17:35, 19:40, 21:55, 23:55.
Domeka: 11:50, 15:55, 17:35, 19:40, 21:55.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:55, 17:35, 19:40, 21:55.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 15:55, 18:30, 21:15, 23:45.
Domeka: 11:45, 15:55, 18:30, 21:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:55, 18:30, 21:15.

***Una casa de locos***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 21:50, 00:15.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 21:50.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza, zapatua, astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena: 15:45, 17:50, 19:50.
Domeka: 12:00, 15:45, 17:50, 19:50.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 16:00, 17:00, 18:45, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Zapatua: 16:00, 17:00, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Domeka: 11:30, 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.
Astelehena: 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.
Martitzena: 17:00, 20:20, 00:00.
Eguaztena: 17:00, 20:30.
Eguena: 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 11:30, 16:30, 19:35, 22:45.
Domeka, astelehena eta eguena: 15:35, 18:40, 21:45.

***Una pandilla de altura***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 15:55, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.
Domeka: 11:45, 15:55, 17:45, 19:45, 21:45.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:55, 17:45, 19:45, 21:45.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 11:45, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Barco fantasma***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:20.
Domeka: 11:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***El esmoquin***
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17:30, 19:25, 21:30, 23:30.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 19:25, 21:30.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza, zapatua, astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena: 15:40, 17:40.
Domeka: 11:40, 15:40, 17:40.

***800 balas***
Egubakoitza: 11:40, 15:30, 18:00.
Astelehena eta eguena: 15:20, 17:35, 20:00, 22:20.

***La edad de hielo***
Egubakoitza, zapatua, astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena: 15:35.
Domeka: 12:00, 15:35.

***El dragón rojo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:50, 20:15.
Domeka: 11:35, 15:25, 22:05.
Astelehena eta eguena: 16:30, 19:15, 21:45.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol: ●●●●● / Lugares comunes: ●●●● / Ocho mujeres: ●●● / El dragón rojo: ●●● / La edad de hielo: ●●● / 800 balas: ●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### BALZAC Y LA JOVEN COSTURERA CHINA

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Dai Sijie.
**AKTOREAK:** Zhou Xun, Chen Kun, Liu Ye.

Azken urteotan nabarmen areagotu da gure pantailetan Ekialdean egiten den zinemaren agerpena. Ang Lee, Zhang Yimou, edo Wong Kar-Wai zuzendariek, euren film ederrekin, Txinan eta beste hainbat herrialdetan egiten den zinemaren kalitatea frogatu dute. Eta, lortutako prestigioak posible egin du beste herrialde batzuetako ekoizleekin harremanetan jartzea, film gehiago egin ahal izateko. Herrialde horien artean, akaso, Frantzia izan da interes handien erakutsi duen zinematografia.

Dai Sijie Frantzian bizi da, eta duela urte batzuk, arrakasta handia lortu zuen *Balzac y la joven costurera china* liburua idatzi zuen. Orain, idazlea zinemagile bihurtu zaigu, berak idatzitako istorioa irudietan bihurtzeko. Literatura eta zinema istorioak kontatzeko arte moduak dira, eta hori da film honek aldarrikatzen duena: zinema, literatura edo ahozko kontakizunak baliagarriak dira gizakion irudimena berpizteko, hezitzeko eta aberasteko.

Kontatzen zaigun istorioa Maoren 70eko hamarkadako Txinan kokatuta dago. Kulturadun bi mutil mendira bidaliko dituzte, hango komuna baten heziketa berria jasotzeko. Hantxe, neska gazte bat ezagutuko dute, eta hirukote horren artean amodio eta adiskidetasunez osatutako harreman sendoak sortuko dira. Mutilek, liburuak eta kultura erabiliaz, neska bere burua baloratzera eta gizaki moduan duen garrantziaz jabetzera eramango dute. Halaxe, lerro gutxitan kontatua, film oso sentibera eta polita dela ematen du, baina ez da hainbesterako. *Balzac y la joven costurera china* gustura ikusten den filma da, baina ez ditu ikuslearen sentimenduak ukitzen. Txinako zineman ohi den bezala, argazkiaren koloreak benetan ederrak dira eta paisaiak filmatzeko modua (postal gozoegian erori barik) oso polita da. Estetikoki gustu onez egindako lana da, baina baita apur bat gainazalekoa ere. Halako filmak egoeren atmosferak lortzen ahalegindu behar dira, nahi den lirismoa eskuratzeko. Filmean, egoera hauek seinalatuak egon arren (kontakizun publikoak, neskaren heziketa…), ez daude ondo garatuak, eta horrela ez du garrantzizko filma izateko beharrezkoa den pausoa ematen.



ANTONIO ZABALA

INMO f3 inmobiliaria SARE
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**ETXEBIZITZAK**

**ARRASATE**
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso ederra. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.
• 85 m². Egongela, hiru logela, bainugela bi, garajea eta ganbara. Oso eguzkitsua. Bista ederrak.

**BERGARA**
• 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/ 21.000.000 pta.
• 51 m², egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 16.000.000 pta.

**LOKALAK**
• **Arrasate**: Ferrerias kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
• **Arrasate**: Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.
• **Bergara**: 230 m²-ko lokal industriala salgai. Lehenengo solairuan dago eta 1.000 kiloko karga-jasogailua dauka. Prezioa: 12.500.000 Pta.
• **Oñati**: 40 m2-ko lokala errentan ematen da. Erakusleihoa dauka.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

MILA ESKER GUGAN KONFIANTZA JARRI DUZUEN GUZTIOI, ETA ZORIONAK ETA URTE BERRI ON.

Eskaera handiagatik etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

NEPTUNO
AKUARIOFILIA DENDA BERRIA
ITSAS AKUARIOAK ETA TROPIKALAK
Serafin Ajuria 2, behea • GASTEIZ
(Adriano VI.a kalearen izkinan dago)
Tel.: 945 22 00 21 / ggv@euskalnet.net
OSAGARRIAK, LANDAREAK ETA UR HOTZEKO ARRAINAK
10:00etatik 13:30era / 16:30etik 21:00etara.
Astelehen goizetan itxita.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

**ARETXABALETA**
ARETXABALETAKO ERDIALDEAN, GARAJE ITXIAK SALGAI. BERRIAK. 609 43 05 39

**BERGARA**
ZERBITZARIA BEHAR DA URTARRILETIK AURRERA. 943 76 07 92

**OÑATI**
PERTSONA BEHAR DA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO. 943 78 30 59

**OÑATI**
ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI
943 71 60 91

**ARETXABALETA**
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

**ELGETA**
PANADEROKUA JATETXEA ERRENTAN EMATEN DA.
943 76 82 73

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 87 m²ko duplexa salgai. Hornitu berria. Iñigo. 943 78 70 78.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai. 74 m². Berogailua, hiru logela, sukaldea, komuna eta bi balkoi. Guztiak kanpo aldera ematen du. 655 72 63 70.

**Arrasate.** Herri erdialdean. Berria. Hiru logela, saloia, bainugela bi, trastelekua eta igogailua. 943 79 99 89.

**Bergara.** 100 m²-ko baserria errentan ematen da. 5.000-6.000 m²-ko ortua ere badu. 658 74 82 13.

**Leintz Gatzaga.** 130 m²-ko duplex errustikoa salgai. Hiru logela (bat goiko aldean), sukaldea eta egongela. Berogailua. Berrituta. 943 71 55 48 edo 620 17 80 51.

**Soria.** Zaharberritzea behar duen etxebizitza salgai Pinares inguruan. 686 05 74 56 edo 975 27 10 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean dago, eta igogailua dauka. Altzairuz jantzita. 943 79 60 88.

**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera. 21:00etatik aurrera. 943 79 18 47.

**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza errentan ematen dut. Berogailua du. 676 71 97 09.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. Langileendako aproposa. 943 79 05 26.

**Bergara.** Logela bat hartuko nuke errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko aukerarekin. 650 89 12 20.

**Bergara.** Neska bi behar ditugu etxea osatzeko (Elena). 948 26 77 30.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Garajea salgai. 670 49 87 40.

**Aretxabaleta.** Araba etorbideko 27an garaje itxia salgai. 20 m2. 943 79 69 83.

**Bergara.** Alkabieta kalean garajea salgai. Prezio interesgarria. 943 76 37 70.

**Bergara.** Garajea salgai Ibargarain. 943 76 72 17.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Eskoriatzako Hidalga kalean. 943 71 43 90.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Santa Kurtz kalean garajea ematen dut errentan. 943 79 16 24.

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Kontzezino kalean. 658 72 09 87.

**Arrasate.** Garajea ematen dut errentan Roneoko etxeetan. 16,5 m². Aitor. 699 49 14 38.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Brushing ile apaindegia saltzen dut. 609 48 99 58.

**Bergara.** Lokala salgai Bolun (100m²). Prezio ona. 607 66 02 44.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Mutil gazte batzuek lokala errentan hartu gura dute. 652 77 89 73.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Deitu 21:00etatik 23:00etara. 943 79 82 78.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da bulegoa garbitzeko. 943 77 04 98.

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gauez deitu. 943 76 44 54.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gertu edozein lan egiteko. 635 70 31 01.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 943 79 88 03.

**Arrasate.** Emakume batek lan egingo luke etxeko lanak egiten eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzen. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Mari Carmen. 943 79 68 77.

**Bergara.** Emakume bat lan egiteko gertu. (Felisa). 600 01 82 76.

**Emakumea** etxeko lanak egiteko gertu, Bergaran edo inguruko herrietan. 686 92 55 57.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Marrazketa Teknikoko eskolak hartuko nituzke: despiezeak, p. konikoa eta s. diedrikoan poliedroen eraikuntza. Goi maila. Deitu gauetan. 658 72 14 27.

**Arrasate.** Gitarrako oinarrizko eskolak jasoko genituzke. Hiru lagun gara. Oihana eta Maialen. 943 79 98 92 edo 943 79 59 77.

**Euskara.** DBHko 4. mailako euskarazko eskolak hartuko nituzke. 943 79 16 24.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Fiat** Punto autoa salgai. 9.500 Km, SS-BG matrikula. Urte eta erdi du. 943 79 47 27.

**Fort** Escort Nomade TD salgai. SS-AS. 2.704 euro. 615 75 82 70 edo 943 76 34 52.

**Husqvarna** WR-360 motoa salgai. SS-AW matrikula du. 1.900 euro. 656 75 35 86.

**Kawasaki** KX 80 motoa salgai. Krosekoa. Ondo dago. Gauez deitu. 943 79 15 50.

**Opel** Astra 1.400 salgai. 687 41 33 48.

**Opel** Kadett autoa salgai. SS-AD matrikula du. 19:00etatik aurrera deitu. 656 73 24 64.

**Opel** Sintra 2,2 16 v GLS monobolumena salgai. 943 78 17 71.

**Peugeot** 205 D 1.8 autoa salgai. Aire girotua, itxitura zentralizatua, kristal-igogailu mekanikoa. Direkzio lagundua. 1997koa. 625 67 36 46 edo 625 67 26 13.

**Renault 21** TI. 2.000 cm3, 120 ZP eta 155.000 Km. Matrikula: SS-AC. Atzeko bola dauka. IAT urrian pasatuta. Estrak. Prezioa: 1.800 euro. 943 79 89 35.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Boxer** txakurra salgai. 18 hilabete ditu. Txiparekin. Txertoa hartuta. 200 euro. 636 65 25 70.

**Rottweiler** arrazako txakurra salgai. Pedigriarekin. Kumaldi bikaina. 943 79 90 43.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bergara.** Autoarendako barrak eta eski-eramaileak salgai. Berri-berriak. 60 euro. 943 76 57 77.

**Errepideko** bizikleta salgai. Ondo dago. Kuadroa Bugno markakoa da (neurria:56). Grupo shimano 600. Pedal automatikoak. Sidi zapatak opari (neurria: 42). 390 euro. Deitu 18:00etatik 22:00etara. Xabi. 946 58 28 64.

**Manparak.** Gelak bereizteko manparak eta sabai desmuntagarria salgai. Prezio onean. 943 78 07 46.

**Matematikako** grafikoak egiten dituen kalkulagailu zientifikoa salgai. Casio FX 7500G. Pantaila du grafikoak ikusteko. 656 75 76 98.

### 806. GALDU

**Bergara.** Domeka gauean belarritako bat galdu nuen. Perla gorrixkadun zintzilikarioa. 943 76 01 62.

**Bergara.** Motxila galdu nuen astelehenean Espoloian, kirol arroparekin. 943 76 06 17.

**Urrezko** belarritakoa galdu dut Arrasaten, Seber Altube inguruan. Suge forma du. Balio sentimental handia. Sarituko da. 658 72 09 87.




IRIZAR ESTANKOA
“NIÑO”-ko LOTERIAkin bete-betian gabitz
Enkarguak hartzen dogu: dezimuak, 20 euro, "Sobretxuak", 50 euro.
(Gaiñera, oinguan, hiru botatakuekin...)
ZORTE ON eta URTE OPAROA IZAN!
943 78 00 15 • OÑATI

## AIPAGARRI

### Mikel Fernández de Arroiabe

ARETXABALETA



Oionen ospatuko dute datorren urteko Araba Euskaraz jaialdia, ekainaren 8an, hain zuzen ere. Hantxe dihardu irakasle lanean Mikelek, eta bera arduratu da jaialdi horretako logoa, kartelak eta irudi guztiak diseinatzeaz. Bestalde, Araba Euskarazeko publizitate arduraduna ere bera da.

### Aitor López Rekarte

ARRASATE



Astelehenean, hilak 23, 2007. urtera arteko kontratua sinatu zuen Aitorrek Realarekin. Aurtengoa, Realean jokatzen duen seigarren denboraldia da Rekarterendako; 1997. urtean, hain zuzen ere, debutatu zuen Realeko lehen taldearekin, eta 190 partidu jokatu ditu ordutik.

### Dani Santos

BERGARA



Kirolgi Fundazioak antolatutako Kirol Argazkien I. Lehiaketan saritua izan da Dani Santos bergararra. Bigarren saria, hain zuzen ere, jaso du Danik. Kirolarekin lotutako zuri-beltzezko argazki batekin irabazi du sari hori. Aurreko astean banatu zituzten sariak.

## JAIOTAKOAK

**Mikel Garagorri Jebali.** Bergaran, abenduaren 2an.
**Unai Aranguren Gallastegi.** Bergaran, abenduaren 11n.
**Unai Tijera Otxoa de Azpuru.** Oñatin, abenduaren 15ean.
**Maria Martínez Loiti.** Bergaran, abenduaren 16an.
**Enaitz Arkauz Aperribai.** Arrasaten, abenduaren 16an.
**Maria Bisquert Fernández.** Bergaran, abenduaren 17an.
**Urtzi Caballero Altuna.** Arrasaten, abenduaren 18an.
**Marta Rubia Borsi.** Arrasaten, abenduaren 19an.
**Daniel Sánchez De Diego.** Arrasaten, abenduaren 20an.

## HILDAKOAK

**Amelia López Rodríguez.** Eskoriatzan, abenduaren 18an. 63 urte.
**Fidel Díaz González.** Arrasaten, abenduaren 19an. 88 urte.
**Domingo Arrayago Zabalo.** Bergaran, abenduaren 21ean. 81 urte.
**Juan Jose Martínez de Zuazo Unzurrunzaga.** Oñatin, 21ean. 61 urte.
**Feliciana García López.** Bergaran, abenduaren 22an. 82 urte.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa:
Goienkaria: 60 €.
Goienkaria + Arrate Irratia: 75 €.



**Daniel Sánchez De Diego**
Arrasate • Abenduaren 20a • 3,290 Kg. Gurasoak: **Diego Sánchez** (Arrasate) eta **Charo De Diego** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Aritz Zabalza Zabaleta**
Bergara • Abenduaren 20a • 3,040 Kg. Gurasoak: **Maria Jesus Zabaleta** (Bergara) eta **Xabier Zabalza** (Bergara). Argazkian, Aritz gurasoekin.



**Iker Mateos Ramos**
Arrasate • Abenduaren 22a • 2,875 Kg. Gurasoak: **Cesar Mateos** (Arrasate) eta **Petri Ramos** (Arrasate). Argazkian, Mateos aitaren besoetan.



**Marta Rubia Borsi**
Arrasate • Abenduaren 19a • 2,960 Kg. Gurasoak: **Angel Rubia** (Arrasate) eta **Gloria Borsi** (Arrasate). Argazkian, umea izeba Lourdesekin.



**Aratz Ormeño Agirreurreta**
Arrasate • Abenduaren 22a • 3,333 Kg. Gurasoak: **Jaione Agirreurreta** (Arrasate) eta **Jabi Ormeño** (Legazpi). Argazkian, Aratz gurasoekin.

URTEURRENA

Jesus
Mendikute Agirre

2001eko abenduaren 4an hil zen 75 urte zituela



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 29n, 11:00ean, **Arrasate**ko San Isidro elizan

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*
ETXEKOOK



**Regina Zabaleta Lamarain** gatzagarra eta **Jose De Sebastian** galiziarra, duela **50 urte** ezkondu ziren, eta Bergaran bizi izan dira ordutik. 1953ko urtarrilaren 6an, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Sei semealaba eta hamabi biloba dituzte, eta eurekin guztiekin ospatuko dituzte urrezko ezteiak. **Zorionak**, bikote, familia osoaren partetik, ondo pasa ezazuela ospakizunetan, eta **urte askotarako**!

KANPAZAR ERRETEGIA

Astelehenetik ostiralera
**EGUNEKO MENUAK**

Espezialitateak:
**okela eta arraina parrillan**

**NEGUKO ORDUTEGIA**
Astelehenetan, astearteetan, eta asteazkenetan:
07:00etatik 19:00etara
Ostegunetan eta ostiraletan:
07:00etatik 23:00etara
Larunbatetan eta igandeetan:
10:00etatik 23:00etara
Abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra arte (biak barne) itxita

**94 658 29 12 • 669 30 26 86 / Kanpazar gaina / ELORRIO**


Txikilandia 2003
Arrasaten, Musakolako kiroldegian
Urtarrilaren
2 - 3 - 4 eta 5 - ean
Ordutegia:
2-3 eta 4-ean:
11etatik 14etara
16etatik 20etara
5-ean:
11etatik
14etara
TXATXILIPURDI
ANTOLATZAILEA
iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42
FAGOR
BABESLEA
ARRASATEKO UDALA

## HITZGEZIDUNAK

Luma




## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**SENDIA ZENDUAN ALA?**

Juan zan Kaietano bere alabiakin "La señora de Fatima" pelikulia ikustera. Bere buruan iñoiz etzan sartu zinian negar egin leikianik. Baiñan ara or bere aurrian emakume bat zeguala negar eta negar pelikula guztian.

Alako batian, itxura danez aspertuta hainbeste negarrekin, ikutu zetsan sorbaldan andriari eta esan zetsan:

- Zu, andra, senidia zenduan ala?

- Ondo daok, emon gorantziak berari be.

Andik apur batera, itxura danez aztuta errekadistia len be kunplidu zebala enkargua, esaten detsa barriro Kaietanori:

- Kaien, gorantzi asko emon destaz Urlixak zuretako.

Ta Kaietanok erantzun:

- Esaioxok lenguak be gastatzeko dakadazela!

**LENGUAK BE GASTATZEKO**

Beiñ batian plaentxiar errekadistak gure eibartarrari:

- Kaien, Plaentxiako Urlixak gorantziak emon destaz zuretako.

**ESANGO DEUAT ETZI**

Felix Legarre naiko astronomua zan zer eguraldi egingo zeban jakiten. Beiñ batian, etorri jakon bat adarra jo naixan:

- Zu, Felix, bixar zer denbora egingo dau?

Eta Felixek:

- Esango dauat etzi.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Zenbat harategi dira Debagoienean, Giokela elkartean sartuta daudenak?

Giokela elkarteko Gipuzkoako banatzaileek eskaintzen duten okela Certicar enpresak ziurtatzen du. Kalitatea bermatuta dago, beraz. Baina, horretaz gain, Giokelako harategiek hainbat ekimen bultzatu dituzte urtean zehar. Esate baterako, Txikitxu dantza taldearen aldeko Pintxo eguna Arrasaten; Anelkar taldearen aldeko Pintxo eguna Antzuolan, edo Bergarako San Martin jaietan haragi-afari herrikoia. Baina, badakizu zenbat harategi diren gure ibarrean, Giokelako bazkide?

- 7
- 9
- 11
- 13

Erantzun zuzena: 9

## SOLUZIOAK





## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Egiten duzun guztiarekin identifikatzeko joera handia daukazunez, zure iritziak eta ekintzak gogotik defendatuko dituzu; hala, ez duzu onartuko oker egon zaitezkeela, eta, horren ondorioz, arazo bat baino gehiago izango duzu jendearekin. Bestalde, pasioa bikotekidearekin daukazun harremanetik kanpo bilatzeko joera.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Inork ulertzen ez dizulakoan zaude; hori dela eta, zure konfiantza osoko lagun batekin bakarrik izango duzu harremana, eta gainerakoengandik aldendu egingo zara. Bestalde, proiektuak baldin badituzu atzerrian, geldi egongo dira; baina lasai egon, utzi dauden moduan, ez atera soluzio beharturik.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Argi ibili zure ingurukoen gainean zer esaten duzun, eta aztertu kontu guztiak ondorioak atera aurretik. Bestalde, konfiantza izan zuren ingurukoengan, eta ez egin kasurik hirugarren pertsonek zabalduko dituzten zurrumurruei.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Eztabaidak lanean, ez zaude-eta batere konforme egungo egoerarekin; hala ere, aztertu egoera objektibotasunarekin, eta edozer esan behar duzula ere, ondo pentsatu aurretik, hanka sar zenezake-eta. Bestalde, larruazalean hainbat erupzio irtengo zaizkizu, eta dermatologoarengana joan beharko duzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Lagun batzuekin desengainua izango duzu; izan ere, ligatzeko gaitasun handia daukazunez, inbidia izango dizute eta zutaz gaizki esaka ibiliko dira. Bestalde, atzerritik berri onak helduko zaizkizu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Ez zaitez izan horren zorrotza jendearen akatsekin, eta, inor kritikatu aurretik, jakin ezazu zuk zeuk ere badituzula. Bestalde, apur bat atsekabetuta egongo zara, egin dituzun inbertsio batzuek ez dute-eta zuk esperotako emaitzarik emango. Azkenik, lasaitasuna eta poztasuna ekarriko duten familia-harremanak.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Lanean ardura ugari izango dituzunez, ezin izango duzu familiakoekin denbora luzerik pasatu, eta atsekabetuta sentituko zara. Bestalde, komunikazio arazo batzuk kausa, gaizki ulertzeak sor daitezke, baina berehala konponduko dira.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Diru sarrera estrak izango dituzu, eta gutiziatan gastatu duzun guztia ordaintzeko lagungarri izango zaizkizu. Bestalde, lanean ardura gutxiago izango dituzu eta opor egun batzuk emango dizkizute; hala, familiakoekin eta lagunekin denbora luzeagoa pasatu ahal izango duzu. Azkenik, zaindu dieta.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Garaia da daukazun kaosa eta desordena atzean uzteko eta bizitza berregituratzeko. Lanean hasiko beharko zenuke berregituratze hori; izan ere, ekonomikoki gauzak ez doaz batere ondo, baina lasai, berehala hobetuko da-eta.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Ez erabili inor zure kexa eta desadostasunak adierazteko. Azal itzazu zuk zeuk, eta emaitza onuragarriagoak lortuko dituzula ikusiko duzu. Bestalde, amodio kontuetan ohikeria gailenduko da, baina hartara ohituko zara, hura aldatzeko ezer egin beharrean.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Seme-alabak baldin badituzu, haiekin hartu-emana ona izango da, dituzten arazo batzuk kontatuko dizkizute, eta zuk lagundu egingo diezu arazook konpontzen. Bestalde, jokoetan sariren bat irabazteko aukera; edozelan ere, argi ibili, ez itzazu galdu txartelak edo frogagiriak.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Lanean aukera berriak izango dituzu mailaz igotzeko, eta laster zehaztuko dira. Bestalde, proiektuak aurrera ateratzeko aukera. Azkenik, lagun berriak egingo dituzu, eta haien arteko batekin amodio-harremana has zenezake.

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

# Debagoieneko telebistako kazetariek urteko saiorik gustukoenak aukeratu dizkigute

- *Ibarreko ETBko kazetari gehienek noiz edo noiz lan egin behar izan dute Urteberri egunean edo Gabonetan*
- *Urteko telebista saiorik berritzaileenen artean, kazetari askok aipatu dute 'Operación triunfo' arrakastatsua*
- *Gabon zahar egunean, jeneralean, ez dute telebistarik ikusten, eta, ikustekotan, film bat ikusiko lukete gustura*



**GERARDO PUENTE / ETB**
BERGARA

**Tokatu zaizu inoiz Gabonetan telebistan lan egitea?**
Bai, orain dela 16 urte, Urteberri egunean, eta oso gogorra izan zen. Eta iaz eta aurten abenduaren 25ean lan egin dut.
**Telebistako saiorik gorrotagarriena?**
*Operación Triunfo* eta *Cuéntame como pasó*. Azken hori manipulazio hutsa iruditzen zait.



**MAIDER EGÜES / ETB**
ARRASATE

**Urte zahar egunean non ikusten dituzu 12 kanpaiak?**
Azken hiru urteak ETB-1en. *Sorginen Laratza*-ko lantaldearekin ibili naiz hiru urteotan, eta saio hura ikustea gustatzen zitzaidan.
**Tokatu zaizu sekula Gabonetan telebista lan egitea?**
Bai, hainbat urtean, baina beti grabatutako saioetan izaten da, hortaz…



**ASIER ARANGUREN / ETB**
ARETXABALETA

**Telebistako saiorik berritzaileena?**
*La noche de Fuentes*, T5en. Ez da berritzailea, Ameriketako Estatu Batuetan antzekoa dagoelako, baina hori gustatu zait.
**Zein saio ikusiko zenuke Gabon zaharrean?**
Ez daukat telebista ikusteko ohiturarik . Negua gogorra da, eta berotara joan ohi gara.



**NORA ASKARGORTA / Localia Gipuzkoa** BERGARA

**Saio bat?**
Jarraitzen dudan bakarra *C.S.I.* (T5) da. Telebista nahiko gutxi ikusten dut. Gutxien gertakarien saioak gustatzen zaizkit, *Gente*-ren (TVE1) estilokoak-eta.
**Gabon zahar egunean zelako saioa ikusi nahi zenuke?**
Urteko laburpen bat, munduan zer gertatu den ikusteko.



**JOKIN ZUBIA / ETB**
OÑATI

**Aurtengo saiorik berritzaileena?**
Uste dut iaz hasi zela, baina *Operación triunfo*. Bete-betean asmatu dute.
**Programarik gustukoena?**
*Blue planet* (ETB-2). Itsasoaren irudi ikusgarriak ematen dituzte.
**Gabon zaharrean?**
Oskorrirena ikusten dugu.



**ANE M. LIZARRALDE / ETB**
BERGARA

**Zer ikusiko zenuke gustura Urte zahar egunean?**
Ez da telebista ikusteko egunik aproposena, baina film on bat, agian. Dena dela, ez diot telebistari kasu handirik egiten.
**Gabonetan lan egin behar izatea tokatu zaizu inoiz?**
Bai, aurten, hilaren 1ean ere joan beharra daukat. Zorionez, egun lasaiak izaten dira.



**RAFA MUNGIA / ETB**
ARRASATE

**Telebistako saiorik berritzaileena? Eta gustukoena?**
*La noche de Fuentes*, elkarrizketak egiteko oso estilo berezia daukalako. Eta gustukoena, *Euskal Herria lau haizetara*.
**Eta kaskarrena edo gorrotagarriena?**
*Cine de barrio*, batez ere, aurkezlearengatik; ez zait batere gustatzen Parada.



**OIHANA ELORZA / ETB**
OÑATI

**Saiorik berritzaileena?**
*La noche de Fuentes* (T5). Eta, zaharra izan arren, *Caiga quien caiga* (T5).
**Ikusi ezin duzun saio bat.**
Prentsa arrosako programak ez ditut batere gustuko.
**Tokatu zaizu inoiz Gabonetan lan egin behar izatea?**
Bai, 25ean eta 1ean. Gogorra da. Aurten, zorionez, jai daukat.



**UNAI LOIDI / ETB**
ARETXABALETA

**Telebista saiorik gustukoena?**
*Dionisio Txoperena Azken Artzaina*, ETB-1eko dokumentala, udan emititutakoa, Iñaki Bizkarrarena. Oso ondo eginda dago eta oso interes handikoa da.
**Eta kaskarrena?**
*Euskadi, la cara oculta*. Justifikatu bako ezkutuko kamerekin egin zuten, morboa pizteko.



**AITZIBER AZKONDO / ETB**
BERGARA

**Saio bat?**
Bada, *Elkartasunaren bidean* (ETB-1). Latindar Amerikako eta Afrikako herrialdeen berri izateko oso ondo dago.
**Ikusi ezin duzun beste bat?**
*Gran hermano* (T5), *Lluvia de estrellas* (A3)...
**Gabon zahar egunean zer ikusiko zenuke gustura?**
Urteko albisteen begiratua.



**UNAI IPARRAGIRRE / ETB**
ARRASATE

**Aurtengo telebista saiorik berritzaileena?**
Ikastetxeen gainean egindako saio eredua izan da berritzailea: *Pop stars*, *Operación triunfo*, *Escuela de actores*, *Betizu*...
**Tokatu zaizu inoiz Gabonetan telebistan lan egitea?**
Bai. 1997an, ETBn sartu nintzenean, *Jaiak 97*-ko lantaldeak *Kaixo 98* egin genuen Zeanuritik.



**ITXARO ZUBILLAGA / ETB**
ARETXABALETA

**Telebistako saiorik berritzaileena?**
*Operación triunfo*-k izan duen bilakaera eta *Cuéntame* telesaila, nik ikusten ez ditudan arren. Baita *Basetxea* ere.
**Zuri gehien gustatu zaizuna? Eta gorrotagarriena?**
Gustukoena, Canal+ kateko *+ te vale* eta gorrotagarriena, *Hay una carta para ti*.



**JUAN LUIS BIKUÑA / ETB**
BERGARA

**Saiorik gustukoena?**
Egia esateko, ez dut telebista askorik ikusten, baina bat esatearren, ETB-2ko *Mundo.hoy* saioan ematen dituzten erreportajeak gustuko ditut.
**Urte zahar egunerako zelako saioa nahiko zenuke?**
Musikalak. Musika klasikoaren eta kulturaren gaineko saioak ikusiko nituzke gustura.



**MAIDER OSA / GOITB**
ARRASATE

**Saio bat? Eta gustatzen ez zaizun beste bat?**
*Cuéntame* (TVE1) eta *Euskal Herria lau haizetara* (ETB-1) atsegin ditut. Bestalde, jende arruntak miseriak kontatzen dituen saioak ezin ditut jasan.
**Gabon zahar egunean zer ikusiko zenuke?**
Ez da telebista ikusteko egunik onena, baina film on bat.



**JORGE FERNÁNDEZ / TELE 5**
ARRASATE

**Aurtengo saiorik berritzaileena?**
Niri *Date el bote* gustatu zait asko, batez ere formatuagatik eta lehiaketaren erritmoagatik.
**Gabon zahar egunean, zer?**
ETB2ko gala aurkeztuko dut Lorena Bernal-ekin. Bestela, egun horretan, ez zait gustatzen telebista ikustea, familiarekin eta lagunekin egotea baizik.




COMERCIAL BRUNET




**Inaugurazioa**
**urtarrilaren 4an, goizeko 11:00etan**

Guztiok gonbidatuta zaudete!





**Telleria 2, Labegaraieta industrialdea**
**BERGARA**
**943 76 31 52**

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2002ko abenduaren 27a

## *Atzeskua*

OXEL EROSTARBE

# Uxue Rodrígez/ 'Betizu' taldeko abeslaria

**B*etizu* taldea lau neska-mutikok osatuko duzue. Barikuan jokatu zen finala eta zu izan zinen aukeratuetako bat. Pozik egongo zara?**

Asko kostatu zaigu ona iristea, eta oso pozik nago. Eskerrak eman nahi dizkiet bergarar guztiei, emandako animuengatik. Hasieran, *Betizu* taldeko partaideak dei eta mezuen bidez aukeratuko zirela uste genuen. Ez zen hala izan, eta saioan izandako maisuek aukeratu gintuzten. Taldea Ainara Epeldek, Leire Merinok, Mikel Zubimendik eta laurok osatuko dugu.

**Sari gisa, New Yorkera bidaia eta diskoa. Noiz grabatuko duzue?**

New Yorkera Aste Santuan joango gara, seguruenik. Diskoa grabatzeko entseguak, berriz, datorren astean hasiko ditugu. Behin entseguak eginda, urtarrilean hasiko gara grabatzen.

***Casting*-era 300 neska-mutiko aurkeztu zineten. Zuri, gainera, deitu egin zizuten parte hartzeko.**

Lehenago, *Betimu* eta *Betishow* saioetan parte hartuta nengoen. Nik deitu aurretik, saiotik deitu zidaten. Guztira, 20 lagun aukeratu gintuzten. Besteak oso onak ziren, eta ez nuen espero amaieraraino heltzerik. Parte-hartzaileok elkarren lagun egin gara, eta esperientzia oso polita izan da. Hasieran, lotsa ematen ziguten kamerek, baina saioak aurrera egin duen neurrian hobeto ibili gara.

**Lau lagunek osatuko duzue taldea. Zer moduz konpontzen zara haiekin?**

Oso ondo, lehiaketan elkarren lagun egin gara. Orain, helburua da grabazioa ondo ateratzea.

**Joxe Mendizabal, Lur Korta eta Lorea Perez de Albenizen laguntza izan duzue. Zer moduz haiekin?**

Asko lagundu digute. Barre asko egin dugu haiekin.

**Nondik datorkizu kanturako eta dantzarako zaletasuna?**

Umetatik izan dut gustuko abestea eta dantza egitea. Musika Eskolan ere badihardut. Etorkizunean ere telebistaren esparru honetan jarraitu nahi nuke.

**Eta etxean zer diote?**

Etxean asko lagundu didate. Gustuko badut jarraitzeko esaten duten lehenak etxekoak dira. Eskolan ere ez dut arazorik izan, nahiz eta bukaera aldera nahiko nekatuta iritsi naizen.

**Urtarriletik aurrera hainbat berrikuntza izango ditu *Betizu* saioak. Zuek ere bertan izango zarete, ezta?**

Saioak musikarendako duen tartean egongo gara. Dantza egiteaz eta abesteaz gain, aurkezpenak ere egin beharko ditugu. Pozik nago, telebistan jarraitzeko aukera izango dut-eta.




**"Lehenago, *Betimu* eta *Betihow* saioetan parte hartuta nengoen. Nik deitu aurretik, saiotik deitu zidaten."**

**"Eskerrak eman nahi dizkiet bergarararrei, eman dizkidaten animuengatik"**

**"Urtarriletik aurrera, *Betizu*-n musika tartea aurkeztuko dugu"**

► *Bergara / 11 urte / Ikaslea*

## PIPERRAUTSA

### *Irakurtzen*

Urte amaierak berekin du balantze egiteko ohitura. Baina aurten ez daukat adorerik, hain kaskar ikusten ditut gauzak. Horren ordez, irakurri berri ditudan bi liburuxka gomendatuko dizkizuet oporretarako.

Lehena ez da berria, Luis Fernandezek 98an idatzi zuen *Etxepare porno* saiakera. Izenak ez du adierazten zertaz den, baina izen ondokoak bai: *'zibernetika euskalduntzeko metodoa'* da, egilearen hitzetan. Interneten euskarak izango zituen aukerak eta arriskuak aztertu zituen Luistxok, oraindik gehienok zer zetorren igarri ezinka genbiltzanean. Eta hain ondo aztertu zituen, gaur egun guztiz baliagarri direla orduan idatzitakoak. Eta edukia ona bada, estiloa da oso erakargarria, zorrotza eta bihurria. Amen baten irakurriko duzue. Alberdaniaren 'Zerberri' sailean argitaratu zen, eta 76 orrialde besterik ez du.

Bigarrena bai da berria, aurtengoa. Egilea da Alessandro Baricco italiarra, eta titulua *Next*. Hemen ere azpikoak adierazten du gaia: *Sobre la globalización y el mundo que viene.* Lehendik irakurria nion Bariccori Seda izeneko eleberria, eta liluratu egin ninduen. Gero *Novecento* ikusi nuen antzerkian. Hura ere bikaina. Oraingoa saiakera da, eta oso interesgarria. Gaia ulertzeko bere ahalegina kontatzen digu idazleak 105 orrialdetan. Inteligentziaz eta naturaltasunez. Anagramak argitaratu du.

Eguneroko miserietatik bista jasotzen lagundu didate neuri. Horixe opa dizuet. Urte berri on!

MIKEL IRIZAR

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
SUKALDE ERAKUSKETA: Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA: Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE
FAGOR
